




Battite Laborde Sarako 03
alkatearekin solasean

Sorpresaz izendatu zuten Sara-ko alkate Battite Laborde joan den martxoan. Etorkezunera begira, laborantza mantendu eta Sarak orain bezala segitzea nahi du.



Beñat Txoperena 44
Gipuzkoako txapeldun

Caja Rural taldean ari den 16 urteko igantziarrak Gipuzkoako Itzulia irabazi du berriki. Lau eguneko bere lehen lasterketa zuen eta ezuste emanez txapeldun atera zen.

2008ko uztailaren 10a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net

PLAN INDUSTRIAL BERRIA MAHAIGAINEN
LESAKAKO FABRIKAREN 50. URTEURRENEAN

04

Legasako produkzioa Lesaka eta Berriobeitira eramanen dute 2011rako



BANDERA



arcelor

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



ORDOKI
altzariak

Estilo ugariko
mobleak



**PIXKA.BAT
ES.MUCHO**



Hartu doan
pixkabatesmucho.com
webgunetik.

DATUAK...

- Iturgina da lanbidez Battite Laborde, 44 urteko saratarra. Lehen ere zinegotzi izandakoa da baina joan den martxoaz geroztik bera da Sarako alkate berria.
- Herriak alternatiba bat behar zuelako aurkeztu omen zen Geroko Sara taldearekin. Ez omen zuen alkate izatea helburu, baina sorpresaz bada ere, lehen itzulian bigarren botatuena izan zen Laborde.
- Zein egitasmo dituzten galdetuta, laborantza salbatu nahiko lukeela nabarmendu digu.



Battite LABORDE *Sarako alkatea*

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Ez gara beti etxe berriak egiten ariko, bertzela laborantza janen dugu»

Gurutze PIKABEA

Nolatan sartu zinen alkatetzan?

Zinez diot ez nintzela alkate izateko aurkeztu. Lehen ere kontseilu desberdinetan egondakoak ginen eta herriari bertze talde bat proposatu nahi genion, batere politikarik gabe alternatiba bat. Proposatu, eta horrela atera zen. Lagunek ni ateratzea nahi zuten, eta ongi pentsatu ondotik baietz erran nuen. Halere, nik kargua ez dut niretzat hartua, kargua partekatu egiten dugu eta hori oso interesantea da.

Espero zenituen halako emaitzak hauteskundeetan?

Ez zitzaidan iruditzen hain aisa pasatuko ginela. Jende arrunta gara gu, Sarako umeak, eta jendeak ongi ezagutzen gaitu. 3.500 lagunetik beheitiko herrietan ordezkari bakoitzari ematen zaio botoa, jendeak zu nahi zaituen ala ez erraten du. Alde horretatik, ni kontent gelditu nintzen, ez bainuen amesten horrelako erreikista izanen genuenik. Lehenagoko taldeak egin zuenarekin Sara ongi joan da baina jendeak aldaketa nahi zuen, buru berriak. Bakoitzak bere ideiak izanen ditu eta gure helburua herriaren alde aritzea da.

«Hurrengo urteetan Saran izanen dugun zailtasunik haundiena, promotoreak tartean direla, laborantza atxikitzea izanen da, Sara orain dagoen bezala mantentzea»

Hauteskunde kanpainan zer proposatu zenuten?

Batetik laborantza salbatu nahi genuke. Horretarako ikerketa bat egiten ahal litzateke hemengo baserri ttikiak iraunarazteko. Denetan behera egin du laborantzak eta guk ez dugu hori nahi. Saran laborariak badira, laborantzatik bizi direnak. Baina Europatik ez zaie batera laguntzen laborari ttikiei. Turistei hemen bi gela edo pisua eskaintzen zaie, eta horrek ere jomala ekartzen diete etxeei laborantza ttikia izanik. Horrela, zinez atxikitzen du Euskal Herria den bezalakoa. Hemendik atera eta Azkaine eta Senperera joanez gero, urbanizazioak dira nagusi, eta guk ez dugu hori nahi Saran, ez gure aitzineko taldeak ere. Horri kasu egin nahiko genioke. Hurrengo urteetan Saran zailta-

sunik haundiena, promotoreak tartean direla, laborantza atxikitzea izanen da, Sara orain bezala mantetzea. Ez gara beti etxe berriak egiten ariko, bertzela laborantza eta herria janen dugu. Gero, bertzetik, Zahar Etxea dugu. Hustu egin behar da, eta guk herriarentzat atxikitzea nahiko genuke, ahal balitz.

Zein dira Sarako alkate izatearen alde onak eta txarrak?

Ohore bat da alkate izatea. Eta oraino ez dut alde txarririk. Alkate ez banintz ere, nire bizitzan harri kokkor bat herriari utzi diodala erraten ahal badut kontent nintzateke. Herri ttiki hauetan %100ean herriarentzat ari behar da lanean, politika alde batera utzita.

Ekonomikoki Sarak ba al du hutsunerik?

Ez du arazorik. Larrungo trena eta leizeak oso ongi bideratzen dira eta soa ekartzen diote herriari.

Esku artean dituzuen proiektuak zein dira?

Sartu berriak gara eta aitzineko legealdikoek hasitakoari segida emanen diogu. Landazelai bat haunditzen hasi ziren eta hori bukatuko dugu, eta herriko langileen depota ere eginen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

1966an ateratako argazkian, Esteban Pikabea, Daniel Gomez, Pepe Calvo, M^a Carmen Ubiria eta Rosa Mari Errandonea. Lantegiko lehendabiziko langileetakoak izan ziren. Argazkia Mitsubishiko montatzaile japoniar batek ateratakoa da.

Ekainaren 16an 50 urte bete ziren Laminaciones de Lesaka lantegia sortu zenetik. 1958ko ekainaren 16an izan zen, eta 15 milioi pezetako kapitalarekin sortu zen. Kapital hori 1.100 milioi pezetara haunditu zen 1972an. Laminaciones de Lesaka lantegia Jose Luis Varez katalanak bultzatu zuen. Txatargile honek tailerra zuen Pasai Antxon, Planeados Metalicos izenekoa, baina Lesakara lekualdatu eta Laminaciones de Lesaka izena hartu zuen. Lantegia martxan paratzerako orduan, Lesakako Udalaren eta Junta de Veintena izeneko batzordearen onarpena jasotzea ez omen zen hain erraza izan. Hasiara gorabeheratsua izan zuen lantegiak, baina izandako eragina historikoa izan da. Batzuk fabrikaren alde, bertzeak kontra, bakoitza bere arrazoiekin, baina azkenean fabrika egitearen aldeko jarrera nagusitu zen. Halaxe kontatu du Jose Luis Etxegaraik. Bere gorabehera guzietan, Baztan-Bidasoaldeko motore ekonomikoa izan zela nabarmentzea ez da sobera erratea.

50 urte igaro dira Lesakako fabrika martxan paratu zenetik

Tarte honetan, lantegi lokala izatetik multinazional baten eskuetara pasatu da

ttipi-ttapa

1958ko martxoaren 21a eta apirilaren 2a egun erabakiorrak izan ziren lantegia martxan paratzerako orduan. Egun horietan egin baitziren Udal batzarra eta Junta de Veintenaren bilkura, Jose Luis Etxegaraik aipatutakoaren arabera. Udal batzarrera enpresaren inguruko hiru lagun joan omen ziren, eta horrek, nolabait, adierazpen askatasuna murriztu omen zien hautetsiei. Herriko

Etxeak enpresari bi milioi pezetako dirulaguntza ematea zegoen eztabaidagai. Junta de Veintenaren bilerara, berri, herritar andana hurbildu omen zen. Batzorde hartan 20 kideak azaldu ziren—batere ohikoa ez zena—eta fabrikaren aldeko jarrera azaltzeko irakatsiak zirela ere erran izan da. Gorabeherak gorabehera, lantegia martxan paratu zen eta urteetan indartsua izanen zen lantegi baten hasiera izan zen hura.

Hasierako urteetan konpetentzia zena, 1973an Lesakako fabrikaren nagusi bihurtu zen. Altos Hornos de Vizcaya hartu baitzuen Laminaciones. Oparaldi ekonomikoa bizi zuen lantegiak: Bilboko enpresaren fakturazioaren erdia Lesakak egiten zuen orduan. Pixkanaka haunditzen joan zen eta Lesakako lantegiarekin batera, Zalain-Zoko eta Legasakoak egin ziren. Garairik onenean 2.000 langile baino gehiago

aritu ziren Laminacioneseko lantegietan: 1.400 Lesakan, 585 Zalain-Zokon eta 193 Legasan. Langile kopuruak goiti egiteak, ordea, giroan aldaketa ekarri omen zuen. Mertxe Igoa fabrika urtetan informatikaria izan denaren arabera, «*Altos Hornos de Vizcayaren –AHV– eskura pasatzean aldaketa nabaritu genuen... Baina AHVren lan sistema desberdina zen, eta guretzat okerragoa izan zen. Gu baino gehiago zirela uste zuten*».

1990EKO HAMARKADAN BEHERAKADA

90eko hamarkada hasieran %20 jaitsi zen langile kopurua eta Corporacion Siderurgica Integral taldean sartu zen lantegia. Gero pribatizatu eta Arbed taldearen esku gelditu zen, Aceralia izena hartuz. Gaur egun, Lesakako lantegiak Arcelor Mittal izena darama Mittal multinazionalak erosi ondotik. Zalaingo lantegia, berriz, Condesa taldearen esku dago. Bietan da nagusi ziurgabetasuna, baina are okerragoa da Legasakoaren egoera, horko lana Lesakan eta Berriobeitin egiten baita etorkizunean.

Mende erdia pasatu da eta ezin da ukatu Laminaciones de Lesakaren bilakaerak eragin haundi eta historikoa izan duenik Bidasoaldean. Gainera, badirudi 50 urteotako historia korapilotsuak baduela segidarik. Hastapenetik langile izan diren Ascen Ordoki, Mertxe Igoa eta Pili Mikelarenak «*krisia*» hitza betidanik aipatu dela erran arren, etorkizunera begira zalantza da nagusi, eta horrek ezinezona sortzen du langileen artean.

ARCELORREK PLAN INDUSTRIAL BERRIA MAHAIGAINERATU DU



Legasako lana Lesakara eta Berriobeitira doa

Langile Batzordeko sindikatu nagusiek ez dute gai honen inguruko balorazio formalik egin nahi momentuz. Hala ere, ahotik ahora dabilen kontua da plan industrialaz hainbat batzar egin direla Lesakan langileen artean. Badirudi plan industrial horren arabera, 2011 bitarte, Legasako fabrikak %100ean funtzionamenduan segituko duela, baina ordutik aitzinera orain Legasan egiten den lana zati batean Berriobeitira eta ber-

tze batean Lesakara lekualdatuko dela.

Antza, Legasan orain dauden perfiladora eta kurbatzeko makina Berriobeitin egiten den planta berrira eramanen dira. Lesakan, berriz, lerro konbinatua deritzona paratuko omen da martxan. Lerro konbinatu honek aldi berean pintatu edota galbanizatze gaitasuna du eta merkaturatzen dagoen puntako teknologia erabiliko duela diote adituek. Horixe bera da Legasako pin-

tura-lerroaren etorkizuna zalantzan paratu dezakeena. Horrez gain, saneatzeko lerroa eta aplakadora mistoa delako makina ere paratuko omen dute Lesakan.

Tresneria berria ekartzeko honek langile-soberrakina sortuko du. Horri aterabidea emateko, 59 urterekin emanen diote erretiroa langileei.

Enpresaren zuzendaritzak, bere aldetik, ez du gai honen inguruko xehetasunik ezagutzera eman.

Ascen ORDOKI Lesakako fabrikako lehendabiziko langileetako bat

«Onura ekarri dio Lesakari, baina baita kaltea ere»

Noiz hasi zinen Laminaciones de Lesakan?

1960an hasi nintzen, bigarren emakumea izan nintzen eta 91. langilea. Momentu hartan Bilbon nengoen eta Pasaian lan egiten zuen ahizpak fabrika ireki behar zutela eta etortzeko erran zidan. Hasiera nahiko polemikoa izan zen. Lesakarentzat salbazioa izanen zela zioten batzuek, bertzeek ezetz. Lesakarentzat eta inguru guztiarentzat izan zen onugaragarria, baina Lesakak aunitz aguantatu eta eman du. Ez da dena hain ona izan.

Hasi baino lehen frogaren bat egin zenuen?

Orduan edozein sar zitekeen. Nik ez nuen prestakuntzarik. Bilbon osabaren etxean bizi nintzen eta hark idazteko makina zeukan. Nire gisara ikasi nuen baina gainerakoa lanean ikasi nuen, halabeharrez. **Nolakoak izan ziren hasierako urte haiek?** Hasieran familia bat bezala ginen, denak ezagutzen ginen eta elkarrekin ateratzen ginen. Erregeak ere egiten ziren, eta opariak banatzen ziren langileen seme-alabentzat.

Noiz etorri zen aldaketa?

Jende aunitz sartu zenean. 13 urte egin nituen Laminacionesen, eta jende gehiena ezagutzen nuen. 13 urte pasatuta, Bearzana kooperatibara joan nintzen eta bi urte eta erdi egin nituen kudeatzaile lanean. Orduan hasi ziren greban. Nik Venezuelara jo nuen, eta berriz bueltatzean arront desberdina ikusi nuen dena.

Nola ikusten duzu orain?

Krisia dagoela beti erran izan da. Atzerritik etorri nintzenean abudo hasi ziren krisiaz so-lasean. Neurri haundi batean nik uste langileek gehiegi ez eskatzeko ere erratan dela. Onura ekarri dio Lesakari, baina baita kaltea ere.



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemalleak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarrea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Jai parekideen alde

Euskal emakumeok gure etorkizun individual eta kolektiboa modu askean erabakitzeko eskubidea mugatua dugu. Sistema patriarkalak ezarritako mugek emakumeok egoera antidemokratiko batean biltzera garamatzen. Egoera honi buelta ematea herritar guztion ardura da eta eragile politiko zein sozialek asko daukagu egiteko. Lan munduan rol tradizionalak jarraitzen dute eta oraindik egon badaude emakumeoi gutxiago ordaintzen dituzten enpresak. Mota guztietako erasoak jasaten ditugu, fisiko zein psikikoak, eta zer esan honen ondorioz dauden hilketetaz; hori ez al da terrorismoa?

Asko daukagu esan eta egiteko baina gaurkoan jai eta kultur arloan jasaten ditugun diskriminazioetan murgilduko gara.

Baztanen esaterako, aurreko udan herri batzuetako bestetan mutil dantzen inguruan gertatutako ekintza baztertzailak salatu nahi ditugu. Emakumeok herrietako ekitaldi publiko eta kultural guztietan parte hartzeko eskubidea bermatzea aldarrikatzen dugu. Herriak herriarentzat ordaindutako eta antolatutako ekitaldietan diskriminazioak ez du tokirik, guztiona den gaur egungo jendartean. Aldi berean, Baztango Udalarri eskubideen errespetuen bermaketan duen lana bete dezan eskatzen diogu. Euskal emakumeok gu-

re alternatiba eraiki behar dugu, emakume eta gizonen artean harreman eredu berriak sortuz, elkarbizitazarako harreman eta harreman afektibo anitz eta askeak izatea behar dugu. Parekidetasunean oinarritutako harremanak sortzeko bidean indarrak jarri behar ditugu.

Jai parekideen aldeko lana eta inplikazioa konpromisoetan bihurtzeko ordua da.

Gora borroka feminista! Eraso sexistarik ez!

**Jaione Irisarri
Bilgune Feminista**

Zalain Transformadosen hauteskunde sindikalak

ELA sindikatuen berri ere irabazi egin dituzten 23an Zalain Transformados lantegian egindako hauteskunde sindikalak. 345 lagunek lan egiten dute gaur egun lantegi honetan.

%92,17ko parte-hartzearekin, ELAk 98 boto eskuratu zituen, %31,41, eta lau ordezkari. Bigarren sindikatua LAB izan zen; 92 boto eta lau ordezkari izan zituen. 65 botorekin eta hiru ordezkariarekin UGT da hurrengoa; eta 32 boto eta ordezkari bakarrekin CCOO. Cofederacion de Cuadros 25 boto eta ordezkari bakarra eskuratu du. ELAk bere eskerrak eman

nahi dizkie bertze behin konfidantza erakutsi duten langile guztiei. Zalainen lan egiten duten pertsonak ordezkatzeko aukeratu baikaituzue.

ELA sindikatua

Sexu diskriminazioa Leitzan

Urte asko pasa dira Sarrriopapel y celulosa S.A. lantegian azken emakumea kontratatu zutenik. Urtero-urtero uda garaian kontratazio ugari izaten dira Leitzako lantegian. Baina, azken emakumea kontratatu zutela jada 30 urte pasatu izan dira.

Idatzi hau hasi aurretik aitortu nahi dut, ni ere emakumea naizela eta bi alaben ama. Eta uda garaia iristen denean oso triste sentitzen naiz, nire alabari inongo lan eskaintzarik iristen ez zaiolako (Iruña Empleon apuntatuta dago). Batzuetan taberna batean egiten du lan, beste batzuetan umeak zaintzen ditu eta nik diot, zergatik ez Sarrriopapel y Celulosa S.A. lantegian? Herrian bertan dagoen lantegia da eta denon onerako izan behar luke, ezta?

Egoera hau ikusita herrian denak isilik gaude. Denak dugu ilobaren bat (mutila noski) fabrikari lanean eta... Zergatik nozitu behar dugu egoera hau? Emakumeak bazterten ari dira.

Beti aditu izan dugu herrian, prentsan... dis-

kriminaziorik ez dagoela eta nik zera diot: egoera hau ez al da diskriminazioa?

Leitzako ama bat

Ikurrina Leitzako udaletxean

Ikurrinaren aldeko ekimen berri bat ezagutzera eman dute Leitzan etxeetan zabaldu duten orri baten bidez. Bertan Ikurrin Leitzan izan duen bilakaeraren errepaso labur bat egiten da. Ikurrina berreskuratzeko ekimen guztiak txaloga-ri eta guztiz aipagarriak dira eta horretan leitzar gehienak ados egon gaitzke. Dena den idatzi horretan, aurreko legealdiari buruzko zenbait adierazpen ez dira zuzenak. «2005ean, Nafarroako Gobernuak 1981ean onartutako ikurren inguruko erabakia praktikan jartzea erabakitzen du beste dekretu baten bidez». Hau ez da horrela. Nafarroako Gobernuak 2003an 1981eko legeak Ikurrina jarri ahal izateko uzten zuen zirrikitua ezeztatzeke, legea aldatzen du. Horren ondorioz zigortu ez zitekeena, hots, Ikurrina udaletxeko balkoian jartzea, zigor daitzke. Eta lege berri hau da 2005ean praktikan jartzea erabakitzen duena, eta ez 1981ekoa. «Ondorioz, garai horretan zegoen alkateak herriari ezer galdetu gabe eta bere erabakiz; 10 urteren

• IRAKURLEAK MINTZO •

ondoren, Ikurrina kendu zuen herrian ezinegonasortuaz». Hau gezurra da, alkateak ez baitzuen Ikurrina bere erabakiz kendu. Ikurrina kentzeko sententzia judicial bat heldu zenean, honen berri eman eta zinegotzi guztiak (Larraingoak barne) bi bileretara deitu ondoren, Ikurrina jasotzea erabaki zen Aralar eta EAko zinegotzien aldeko botoekin. Nonbait, ez zen oso erabaki okerra izan. Udal berria eratu zenez geroztik urte bat pasa eta ez baitute atzera bota, nahiz eta gehiengo osoa izan. Egun puntaletan jartzen dutela esanez garbitu nahi dute beren burua. Zergatik ez dute 2005ean hartutako erabakia atzera bota eta erabat jartzen? Gainera, orain ere norbaitek kenduko du, egun puntual horiek pasa ondoren.

«Honen ondorioz, Ikurrinaren Aldeko Taldea sortu zen herrian, Herri Kontsulta egin asmoz. Baina, Aralarren jarrera zela me-

dio, zapuzturik gelditu zen kontsulta hau». Hau ere ez zen horrela izan. Kontsulta bertan bera utzi zutenak Larrain Herri Plataforma, EA eta Ikurrinaren Aldeko Taldea izan ziren, Aralar deitu ez zuten bilera batean. Kontsulta honi buruz, Aralarrek argi utzi zuen, kontsulta egiteko egin ziren bilera guztietan, ez zegoela ados egin zen galderarekin, ez baitzigan Udalean hartutako erabakia defendatzeko aukerarik ematen. Galdera aldatzen saiatu baginen ere, ez omen zegoen beste galdera bat adostu zutena bezain zuzena. Geroago Goizueta ikusi zen hori ez zela horrela, baina lortu nahi zutena gu defendatzeko aukerarik gabe uztea zen. Horren aurrean, Aralarrek galdera hari beste erantzun bat ematea erabaki zuen, babilorik gabeko bozaren bidez eta egun batzuk lehenago banatu zituen bere papertxoak, erantzun propioarekin.

Gure erabakiari erantzunez, hiru talde haiek herri kontsulta bertan bera uztea erabaki zuten, herriak informazio objektiboa ez zuela argudiatuz. Eurek izan ziren herriari hitza ukatu ziotenak. Gure erabakia ez bazen zuzena, herriak bozetan adieraziko zuen. Baina aukera hori eman beharrean, herria zuzen aukeratzeko prest ez zegoela erabaki zuten, beste garai batzuk gogora ekarri. Puntu honekin bukatzeko, herri kontsultaren aldeko taldeak, kontsulta bertan behera gelditu ondoren, berretsi zuen kontsulta egiten zela. Zergatik ez da egin? Zergatik eta galdera berberarekin ez da orain egiten Aralar «oztopo» ez dela? Jo dezagun idatzi honetan aipatu ditugun arrazoiak ez dizkizuela konbentzitzen, jo dezagun ez direla zuzenak, nahiz eta aipatzen duguna guztiz egia izan. Horrela izango balitz ere, begiratu dezagun etorkizunari. On-

gi dago herriaren babesa bilatzea eta ekimenak antolatzea, baina gai hau Udalaren eskuetan dago, baldintzatuta ikurren legearengatik, noski. Udalak baloratu behar ditu ondorio legalak, besterik ez. Gure ustez, Udala babestu behar zen eta horrela eskatu genuen herri kontsultaren paperetan. Orain agintean daudenek alkatearen dimisioa eskatu zuten eta beste aldetik udaletxean ikurrina jartzeko mozioa aurkeztu zuten. Zergatik ez dute orain mozio hori aurkezten? Gogoratu behar da, orduan mozio hori ez zela onartu, Aralar eta EA abstenitu zirelako. Gai hau, gaurko agintariek aurreko legealdian eskatzen zutena eginen balute, azkar moldatuko litzateke, ikurriña jarrri eta kitto... gero gerokola, zergatik ez dute ikurriña modu iraunkorrean jartzeten?; ez da izanen, guk emandako arrazoiak egiazkoak zirela? Zoritxarrez, denborak arrazoa eman di-

gu. Lehen ikurriña berehala jartzea eskatzen zutenak, orain jartzen ez badute, zerbaitengatik izanen da. Esandakoa. Gauzak argi eta garbi utzi behar dira, gure ustez. Ikurriña berreskuratzeko ekimen guztiak beharrezkoak dira eta alegin horretan leitzar gehienak, ados egon gaiteske. Leitzako Aralarki-deak.

Leitzako Aralar

OHARRA
 Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

TOLDOS BAZTAN, S.L.
 TOLDOAK: salmenta-konponketa, alokairua, errotulazioa
 MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatutak-veneziarrek
 PVCko LEJHO eta ITXITURAK
TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA
 Teleturako, egurrak tapatzeko...
 Neurriak: 10x10 m • 10x14m • 8x7m • 6x6 7m
 Bidasoa, 66 beheko • BERA • Tfnoa eta Faxe: 948 631003
 PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

sarha
 gasteiga ohartze
 Of. 21, Estrejoia 25 bdo 1.948 63 08 00
 4700 berri (navarra) www.sarha.net

PIKABEA
 harategia janariak
 Bidasoa, 7 BERA • 948 631 204

ANTZUZELAK S.L.
 Tel: 948 631 317
HARRO NATURALA
 Alentze eta Lantze
 Antzuzelak: Harro Naturala, Harro Naturala, Harro Naturala, Harro Naturala, Harro Naturala
ANTZUZELAK S.L.
 Bidasoa, 66 BERA • 948 631 003

LAGUNTZA

Inguruko udaletara 2,3 milioi euro bideratuko ditu Gobernuak 2012a bitarte

Nahi den alorretan gastatzeko izanen da diru hori

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 233,3 milioi euro aurreikusi ditu 2009 eta 2012 urteen artean Tokiko Inbertsio Planerako: 56,2 milioi euro joanen dira 2009an, 57,6 milioi euro 2010ean, 59 milioi euro 2011n eta 60,5 milioi euro 2012an. Kopuru horren %17a, 40 milioi euro, lehenda-bizko aldiz, udalek eu-

rek nahi bezala kudeatu ahal izanen dute, hau da, nahi duten inbertsioetara bideratzeko aukera izanen dute diru hori. Ondoko taulan 2009tik 2012ra bitartean eskualdeko udal bakoitzak libreki bideratzeko zenbateko kopurua jasoko duen ageri da, eta laguntza hori zenbatekoa den biztanle bakoitzeko.

392.000 euroko laguntza azpiegitura lanetarako

Eskualdeko 11 udalerrik jasoko dute laguntza hori

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio-ko Departamentuak 391.687 euroko dirulaguntza onartu du eskualdeko hainbat herritan. Diru hori azpiegitura lanak finantzatzeko erabiliko da, batez ere, oztopo arkitektonikoak kentzeko eta seinalazio, aparkaleku eta igerilekuetarako. Nafarroako hainbat herritan eginen

diren 16,2 milioi euroko gastuetatik laguntza 7,9 milioiokoa izanen da. 41 herritako igerilekuetan jasoko da laguntza; oztopo arkitektonikoak kentzeko 64 herrik eskuratuko dute dirua; seinalazioen obrak egiteko 72 herrik eta aparkalekuen lanak egin dituzten berte 55ek. Eskualdean 11 herrik hartuko dute laguntza.

HERRIA	DOTAZIOA	BIZTANLEKO
BAZTAN	448.508,45 €	57,16 €
BERA	211.412,42 €	57,39 €
LEITZA	171.385,12 €	59,32 €
LESAKA	169.964,85 €	61,36 €
DONEZTEBE	133.677,77 €	87,83 €
GOIZUETA	99.919,12 €	122,60 €
ETXALAR	98.935,03 €	123,51 €
BERTIZARANA	87.775,55 €	133,59 €
SUNBILLA	87.775,55 €	133,59 €
ARANTZA	86.511,70 €	133,51 €
IGANTZI	82.566,54 €	136,25 €
ITUREN	70.276,24 €	147,33 €
DONAMARIA	66.275,55 €	157,80 €
URDAZUBI	59.516,10 €	171,02 €
ZUBIETA	55.059,61 €	178,19 €
ARESO	52.428,54 €	182,04 €
BEINTZA-LABAIEN	48.388,85 €	187,55 €
ZUGARRAMURDI	43.715,45 €	193,43 €
ELGORRIAGA	42.643,00 €	194,72 €
EZKURRA	37.441,59 €	201,30 €
URROTZ	36.966,15 €	202,00 €
ERATSUN	34.525,80 €	205,51 €
OITZ	32.153,14 €	208,79 €
ARANO	27.318,26 €	215,10 €
SALDIAS	26.009,08 €	216,74 €
GUZTIRA	2.311.149,46 €	-

HERRIAK	ZERTARAKO	AURREKONTUA	LAGUNTZA
BAZTAN	Elizondo: oztopo arkitektonikoak kendu	184.959,68 €	92.479,84 €
	Aparkalekuak (20 auto; 12 kamioi)	96.000,00 €	48.000,00 €
LEITZA	Oztopo arkitektonikoak kendu	28.351,08 €	14.175,54 €
	Seinalazioa	2.994,00 €	1.497,21 €
	Igerilekuetan eraberritze lanak	83.442,50 €	83.442,50 €
GOIZUETA	Oztopo arkitektonikoak kendu	9.677,98 €	4.838,99 €
	Seinalazioa	12.031,25 €	3.000,00 €
	20 aparkaleku	24.000,00 €	12.000,00 €
ETXALAR	Barandillak paratu	70.219,93 €	30.000,00 €
	Seinalazioa herrigunean	1.360,75 €	680,38,00 €
IGANTZI	Barandillak	13.769,20 €	6.884,00 €
	Seinalazioa	2.692,94 €	1.346,47 €
	Aparkalekuak egin eta eraberritu	24.000,00 €	12.000,00 €
	Igerilekuak: makineria eta kanaleta	46.079,06 €	46.079,06 €
BERA	Herriguneko seinalazioa	4.840,24 €	2.420,12 €
	Aparkalekurako zabalgunea egokitu	24.000,00 €	12.000 €
LESAKA	Agina gainean aparkalekua	24.000,00 €	12.000 €
SUNBILLA	Errepideko seinalazioa	2.955,68 €	1.477,84 €
ARANTZA	Seinalazioa	8.493,52 €	3.000 €
ITUREN	Herrigunean seinalazioa	1.880,36 €	940,18 €
URDAZUBI	Errepideetan seinalazioa	10.208,00 €	3.000,00 €
NARBARTE	Bi seinale paratu	850,00 €	425,00 €
GUZTIRA		676.806,59 €	391.687,13 €



BERA

FLASH

Informazio eta Turismo Bulegoa inauguratu dute Ibardinen

Bera, Urruña, Lesaka eta Biriaturi buruzko informazioa eskainiko du

ttipi-ttapa

Turismo Bulegoa propioa du Ibardinek joan den hilabeteaz geroztik, zehazki, ekainaren 27az geroztik. Hemendik aitzinera, Bera eta Urruña arteko Ibardingo merkataritza eta natura guneari buruz, nahiz Bera, Urruña, Lesaka eta Biriaturiko herriei buruzko informazioa helaraziko die hurbiltzen diren guztiei. Irekiera egunean, bulegoa ikusteaz gain, egindako amankomuneko azpiegitura sarearen eta komunikazio euskarrien aurkezpena ere egin zen.

Turismo bulegoa ez ezik, mendi ibilaldiak eta bertzelako zerbitzuak ere aurkeztu zituzten. Ibardinetik abiatuta hiru ibilbide proposatu dituzte: laku ingurura, monumentu megalitikoaren ingurura eta Larun aldera. Josu Irtzoki alkateak Urruñarekin elkarlanean aritzeko borondatea azpimarratu zuen. Eta Odile de Coral Urruñako auzapezaren ere Ibardinen egindako lanak goraiatu zituen, tartean Urruña aldean dagoen eta 75 autoren dako lekua duen aparkaleku publikoa. Nafarroako Gobernuak



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Turismo Bulego berriaren inaugurazio ekitaldian jende andana bildu zen.

tura departamentuko Marketing Turistiko Zerbitzuko zuzendaria den Carmen Oroz ere ekitaldian izan zen.

Lanak guztira 1.117.733,59 euro kostatzen dira eta Interreg III-Aren laguntza 558.866,8 eurokoa izan da. Urruñako Udalak 110.664,30 euro ordaindu ditu eta gainontzekoa Ibardingo Merkataritza Elkarteak bideratu du.

Egindako lanak hauek izan dira: sarearen azpiegitura berriak —ur hornidura, saneamendua, elektrizitatea, gasa, telefonía— sare amankomunak osatuz; informazio puntua erakirik; eta promozio eta komunikazio euskarriak

paratu —informazio seinaleak, interpretazio mahaia eta sortu diren hiru oinezkoendako ibilbideen seinalizazioa; foiltoak eta web orria www.ibardin.net—.

ELA nagusi Zalaingo tubu lantegiko hauteskundeetan

Guttigatik, baina azken hauteskundeetan ere, ELA sindikatuak lortu ditu Zalain Transformados lantegian boto gehien. Ekainaren 23an egindako hauteskunde sindikaletan %92,17eko parte-hartzea izan zen. ELAK 98 boto eskuratu zituen, botoen %31,41a. Horrenbertez, lau ordezkari izanen ditu, ai-

tzineko aldi bako bako ordezkari bat guttiago. Boto guttiago aldea ateratzen, ordea, LAB bigarren indarrari, honek 92 eskuratu baitzituen. Hala, ELAren ordezkari kopuru bera izanen du LABek ere —aitzineko aldi bako bako aldean ere lau zituen—.

Hirugarren indarra UGT izan da. Honek 65 boto lortu zituen azken hauteskunde sindikaletan eta hiru ordezkari izanen ditu, aitzinekoan baino bat gehiago. CCOO, berriz, 32 boto eskuratu zituen eta ordezkari bakarra izanen du, baita Cofederacion de Cuadros ere. Azken honek 25 boto jaso zituen azken hauteskundeetan.

Herria ezagutzeko bisita gidatuak

Uztailaren 8az geroztik bisita gidatuak egiteko aukera dago astearte eta ortzegunetan karraketan barna. Luluratura izena daraman egitasmo hau bidaiari literario bat da. 11:30ean Herriko Etxeko plazatik abiatzen da eta Lamixine antzerki taldearen laguntzarekin testu literario, istorio tiki, ipuin eta abarrek ilustratzen dute bidaiari. Irailaren 4a bitarte izanen da horretarako aukera eta izenematea Turismo Bulegoan egin behar da, bisita hasi baino 30 minutu lehenago arte. Bi euro ordaindu behar dira.

Lizuniagako ehiza barrutia prestatzen

Aurtengo ehiza denboraldiari begira, Ehiza eta Arrantza Elkarteak 2007ko talde berdinak mantentzea erabaki du Lizuniagako ehiza barrutian. Norbaitek izena eman nahi izanez gero, edo baja eman, elkarteari idatziz jakinarazi beharko dio eta horretarako gelditzen diren azken egunak uztailaren 11 eta 18a dira. 19:00etatik 21:00etara bitarte egonen da zabalik elkarteak. Bertzalde, aipatu, ehiztarien egutegiaren zozketa abuztuaren 8an egingen dela, 20:30ean elkarteak. Ehiztarietako bete beharrek arauak eta egutegiaren datuak elkartearen daude ikusgai.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

JAKINE-GOZTEGI
Alzate 19 BERA 948630768

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 BERA

LESAKA

‘Landazelaiak Lesakarentzat’ herri plataforma aurkeztu da

Aldarrikapenen artean, zentro komertzialik ez egitea eskatzen du

Aitor AROTZENA

Landazelaiak Lesakarentzat herri plataformaren aurkezpena egin zen ekainaren 27an, Udaletxeko arkupetan.

Plataforma hau, herriko sentsibilitate ezberdinez osatuta dago eta Udalak eta konструкторak egin asmo zuten proiektua ikusita sortu zen.

Landazelaiak Lesakarentzat herri plataformak irekia eta zabala izan nahi du, Javier Oronozek hasierako aurkezpenean adierazi zuen bezala. Noruegako Emily Brönte idazlearen hitzak hartu zituen, plataforman parte hartu nahi duen herritar orok atek zabalik aurkituko dituela adierazteko: «*Bihotzak bildu nahi badituzue, bihotzak erein behar dituzue*».

«**ZENTRO KOMERTZIALIK EZ!**»

Alde horretatik, herri plataformaren aldarrikapenen berri eman zuten Mertxe Rekondok eta Endixa Mendegiak: «*Zentro komertzialik ez! Lesaka bizirik nahi dugulako, komertzio ttikiaren alde gaude; eredu justuago, solidarioago, jasangarriago baten alde*».

Etxebizitza arloan, Le-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

‘Landazelaiak Lesakarentzat’ herri plataformaren aurkezpena hainbat herritar bildu zuen.

saka eta Lesakako herritarren beharrak zehaztuko dituen ikerketa ezinbertzekoa dela ere uste du herri plataformak: «*Ez gaude etxebizitzak eraikitzearen kontra baina Landazelaiak Lesaka eta Lesakako herritarren beharrak asezteko erabili behar dira, bai oraingoan, baita ondorengoan ere. ‘Gaurko ogiari eta bihariko gosia’-ri ezetz diogu*». Bide horretan, lehenik eta behin, behar horiek zeintzuk diren jakin behar dela uste du Landazelaiak Lesakarentzat herri plataformak: «*Horixe lortzeko bide bat baino ez dago: ikerketa*

serio eta sakona egitea, zenbat etxebizitza behar diren, bilakaera demografikoa, noiz, non, nola, nolakoak, zer motakoak, alokairua, tute-latua, babestua, librea...».

«**HERRITARREN IRITZIA KONTUAN HARTZEA**»

Herritarren iritzia kontuan hartu gabe inolako erabakirik ez hartzea ere eskatu diote Lesakako Udalarari: «*Landazelaie-tan garatuko den edozein proiektu Lesaka eta Lesakako herritarren izaeraren errespetuan oinarritu behar da eta prozesu horretan ezinbertzekoa da herritarren*

parte-hartzea». Udalak parte-hartze hori bultzatu eta bermatuko dituen tresnak martxan jarri behar dituela ere uste du Landazelaiak Lesakarentzat herri plataformak: «*Nolako herria nahi dugun eta nolako Lesaka utzi nahi diegun gure ondorengoei, herritar guzientzako ardura eta kezka behar du izan, ezin da bakarrik Udalaren baitan egon*».

Agerraldia akautzeko, etxez etxe informazio-orri bat banatu dutela gogorarazi zuen Javier Oronozek eta aurrerantzean ere urrats gehiago emanen dituztela aipatu zuen.



PERTSONAIK

Luciano MITXELENA

Quebrantahuesos proba famatuan garaile izan zen bere kategorian

8.000 txirrindulari baino gehiagok parte hartu zuen ekainaren 21ean Quebrantahuesos proba famatuan. Horietatik hamar bat herritik joan ziren. Xabier Zozaia izan zen bizkorrena, 27. postuan. Luciano Mitxelena, berriz, 48. izan zen sailkapen orokorrean. 55 urte ditu Lucianok eta bere kategorian (55-65 urte artean) onena izan zen. Ez da nolana hiko marka, kontuan hartzen badugu bizikletan 45 urte zituela hasi zela. Aurten, Luchon, Lourdes, Bonaigua eta Grausko lasterketak ere irabazi ditu bere kategorian. Aitzinera begira, abuztuan egingen den Master kategoriari (50-60 urte) Euskadiko txapelketarako ongi prestatzeko ilusioa du Lucianok.

IRU BIDE
Estrategia - Asaklar
Bilaketa, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

BOZ-ALDE
JANARDUEKIA
www.11.com • 948 637 127

TAILERRAK
ALMANDOZI
• Mekanika • Karrozeria • Ibilgailuak
• Elektrizitatea • Kamiolak • Furgoneta - 4x4
Fax: 948 625 171 • Mug: 679 892 032
Banerri, 18 • Alkaiaga Ind. • LESAKA

MERTZERIA
Leñe
LENTZERIA
Tel: 948 625 014
Banerri Plaza 10 - LESAKA

ETXALAR

Nazioarteko gazteen folklore jaialdia herrian egingen da uztailaren 27an

Argentina eta Poloniako dantzariak etorriko dira

Joseba eta Nerea

Hamabigarren urtez Eraiki dantza taldeak Bidasoaldeko jaialdia antolatu du, eta aldi honetan gure herrira ekarri du. Aurten ere gure artean hain arrakasta handia duen ekitaldi honetaz gozatzeko aukera izanen dugu. Uztailaren 27an, igandea, izanen da, 12:30ak aldera. Urtero herrialde desberdinetako dantza taldeak ekartzen saiatzen dira eta aurtengoa Argentina eta Poloniako bi talde etorriko dira beraien dantzatzeko ohiturak erakusteko.

Berandu baina, igerilekuak zabalik

Joan den uztailaren 5ean, larunbata, ireki zituena ateak herriko igerilekuak. Apirilaz geroztik udaletxea igerilekuko sorosleak kontratatzeke nahian ibili da. Horretarako lehenik, igerilekuak hartzeko sorosleak behar zirela adierazten zuen deial-

dia atera zuen. Baina deialdi honetan ez zuen inork izenik eman. Geroztik, hainbat enpresa eta jendekin kontaktuan jarri eta gero, berako Gorka Zurbanok bere burua aurkeztu du eginkizun horretarako. Beraz, berandu bada ere, azkenean igerilekuak bere ateak ireki ditu haur eta helduei udako beroak freskatzen laguntzeko.

PUZGARRIAK IGERILEKUAN

Bertze urte batez Udalak haurren gozameneko puzgarriak datorren larunbatean, hau da, uztailaren 19an. Puzgarriak 15:00etatik 19:00ak arte izanen dira. Ea eguraldiak laguntzen duen.

Bestetako bilera

Uztailaren 10ean, 20:00etan izanen da bestetako bilera Kultur Etxean. Aurtengo berrikuntzei buruz informazioa emateaz gain,

zenbait gauza zehaztu behar dira, hala nola, Herri Afaria eta Asaua

antolatzea noren esku geldituko den. Herritar guztiak gonbidatuak

zaudete bilera honetara besten inguruan edo zer gauza errateko.



ARGAZKIAK: ONINTZE ZINKUNEGI

Bekolanda, indartzen ari den auzoa

Sanjuan suak dira adibiderik garbiena. Bekolanda auzoak geroz eta indar handiagoa hartzen ari du Etxalarren azken urteotan. Aspalditik Murdene gainean egiten bazen ere, aurten urteko egunik luzeena, Sanjuan bezpera, Bekolanda auzoan ospatu zen. Haurrek etxez etxe bildutako puskak eta hondarrak hantxe erre ziren, besta tiki baten aitzakian. Batzuk kantari, bertzerik ez da, duela urte batzuk indarberritzen hasi zen auzo honek herrian duen presentzia erakusten duena. Gero eta jende gehiago bizi da Bekolandan, etxe berri aunitz egiten ari dira, Eguberrietako eta herriko bestetako kalejirak handik pasatzen dira, herriko nahiz kanpoko jendeak bizitokia han hartu du, eta oraindik gehiago handituko da, hainbat bizitza egiten ari baitira. Etxe eder eta paraje politengatik ezagutu daitekeen auzoa herriko bizia indartzen ari da, bertakoen eta kanpokoek mesedetan.

oreka
nutrizioa eta dietetika
sandra legasa rola
dietetika eta nutrizioan diplomadua

- Sendabelarrak, elikadura, produktu ekologikoak, kosmetika naturala...
- Dietista-nutrizionista kontsulta
- Terapia naturalak: Reiki, Reflexologia, masajeak...

OREKA - arretxas 7 - 31770 Lesaka
T 948 63 73 73
orekanutrizioa@hotmail.com

ZJ
Zalain
jatetxea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

BIKER-BIKE

Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

ARANTZA

20 bikote ari dira Frontenis Txapelketan parte hartzen

16 bikote ari dira gizonezkoetan eta 4 bikote emakumezkoetan

Nerea ALTZURI

Zaletuek ongi erantzun diote deialdiari. Ekaitza Elkartek antolatutako Frontenis Txapelketan 40 lagunek izena eman dute. Joan den ekainaren 26an, ortzirarekin, partidak jokatzen hasi ziren frontoian. Emakumezkoetan lau bikote daude eta gainerakoak 16 mutil bikote dira.

20 bikoteen arteko norgehiagoken ondoren, final nagusia uztailearen 26an egingen da. Txapeldunek eta txapeldunordeek sariak izanen dituzte eta parte hartu duten guzietan afaria egingen dute elkartean.

Nafarroako Gobernuko dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio departamentuak bideak zein herriko kaxkoan seinaleak paratzeko Nafarroako 71 udalerriri diruz lagundu ditu. Horretarako 1,8

milioi euroko inbertsioetik 452.351 euroko dirulaguntza emanen du.

Arantzan, seinalizazioarako 8.493,52 euroko inbertsioa izanen da eta Nafarroako Gobernuak 3.000 euroko subentzioa onartu du.

LIBREKI BIDERATZEKO LAGUNTZA

2009-2012 urteen artean egin beharreko inbertsio planerako 233,3

milioi euro aurreikusitako Gobernuak. Kopuru horretatik 40 milioi udalerek beurek nahi duten moduan erabiltzeko zehaztu da. Arantzari dagokionez, libreki erabiltzeko 86.511,70 euroko diru partida izanen da, biztanleko 133,51 euro.

BERTZELAKO LAGUNTZA

2005-2008ko Toki Azpiegituren Planaren barne, Gobernuak erre-

serban zituen hainbat proiektu diruz lagundu ditu. Gure herriaren kasuan, ur horniduran egin diren eta egin behar diren hobekuntza lanetarako 29.393,58 euroko dirulaguntza jasoko du Udalak; bertetik, Herriko Etxea moldatzeko lanei aitzin egiteko 27.179,54 euro; eta azkenik, argiteria zabalatzeko 72.983,99 euroko subentzioa jasoko da.



ARGAZKIA: N. ALTZURI

Belarretarako arorik ez

Ez ohiko uda izaten ari da, eguraldi nahasiarekin. Alde horretatik, baserriarrak kezu dira belarrak egiteko behar bezalako eguraldirik ez duela egiten. Eta hala da, belar guztiak zakartuak eta haundituk daude.



PERTSONAIA

Mentxu PEÑA

Elbrus helburu

Mentxu Peña sortzez irundarra bada ere, duela 18 urtetik Arantzan bizi da Mainenborda baxerrian. Lesakako Matxinbeltzenea euskaltzainak irakaslea da baina bere lanbidea bertze zaletasun batekin uztartzen du: mendia. Mendizale amorratua da. Urte saila dira mendian ibiltzen hasi zela. Astehondarreroko mendira joatea du afizio eta aitortu digunez, «itsutua» dago. Iaz Mariemendi Euskal Herriko 40 urtetik gorako emakumezko mendizale euskaldunen taldera batu zen. Talde horren aldarrikapen nagusiak euskara eta aisialdia dira. Uztailearen 16tik 27ra 20 emakume Elbrus mendira igoko dira. Kaukaso mendilerroan dago, Georgian, eta Europako mendirik altuena da: 5.642 metroko garaiera du. Tartean Mentxu joanen da. Erronka handia da eta urte osoan mendiak igo eta jautsi aritu dira. Iazko uztailean Mont Blanc mendira joan ziren; eta orduan Mentxuk lanagatik ez zuen aukerarik izan. Aurten bertzelako plangintza egin du eta espedizioan parte hartuko du. Bidaia on Mentxu!



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.

Igantzikoko bentak
948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaia
- Mantenu rodilloak



BORTZIRI
UNSIÕN ANAIK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ESKUALDEA

Saharako 11 haurrek gure herrietan pasatuko dute uda

Saharatik haurrak ekartzeko egindako zozketako zenbaki sarituak jakinarazi dira

ttipi-ttapa

Azken urteotan beza-
la, bisitan ditugu aurten
ere Saharako haurrak.
Guztira 11 etorri da eta
Baztan, Bortziriak, Ma-
lerreka eta Leitzaldean
pasatuko dute uda. Ekai-
naren 17an etorri ziren
eta abuztuaren 16an har-
tuko dute etxerako bidea.

Euren herrian jaso
ezin dituzten zerbitzuak
eskaintzea, eta bide ba-
tez, Saharako herriaren
egoera zein den ezaguta-
raztea da Saharar He-
rriaren Elkartasuna Tal-
dearen helburu nagusia
eta horregatik ekartzen
dituzte haurrak urtero.

ZENBAKI SARITUAK

Saharar Herriarekin
Elkartasun Taldeak aurt-
engo udan eskualdera
Saharako haurrak ekar-
tzeko laguntza lortu as-



ARGAZKIA: DORLETA AGIRRE

Abuztuaren 16a bitarte eskualdean egonen dira Saharatik etorritako 11 haur.

moz, zozketa ere egin
ohi du. Aurtengoa, ekai-
naren 23an egin zen.
Zenbaki saritu bakoitzak
bi pertsonentzako afaria
edo bazkaria izanen du
eskualdeko jatetxe ba-
tzuetan. Hauexek dira
zenbaki sarituak eta da-
gokion jatetxea:

Leitzan Harakindegia ja-

tetxean 1.401 zenbakia;
Sagasti jatetxean saldua
2.507; Erreka sagardo-
tegia 3.380; Hiruso os-
tatan 3.103; Musunza-
har jatetxean 1.268; Be-
atrizenea jatetxean
1.765.

Malerrekan sei izan
dira zenbaki sarituak: **Itu-
renen** Herriko Ostatuan

1.794 zenbakia; Altxu-
nea erretegia 3.302;
Oitzko Ostatuan 1.251;
Beintza-Labaiengo os-
tatan 1.615. **Donezte-
ben** Belarra jatetxean
1.634; **Donamariako**
Bentako 3.073.

Bortzirietan, lau saritu
atera dira. **Lesakako**
Koxkonta jatetxean

1.582; **Etxalarren**, He-
rriko Ostatuan 1.230; Elu-
tsa ostatuan 3.202; **Igan-
tziko** La Villa jatetxean
3204.

Baztanera hamar sa-
ri joan dira: **Arizkun**,
Uxo Okindegian 3.036;
Ordoki Likorerian 3.199.
Elizondoko Galarza ja-
tetxean 2.028; Kortarixar
jateko 1.564; Eskisa-
roi jatetxean 1.154; Itza-
largikobordan 2.440; **El-
beteko** ostatuan 1.216;
Oñaska jatetxean 1.214.
Ornoz-Mugairiko Pie-
resenea jatetxean 1.728;
Gartzaingo Fransene os-
tatan azkena, 1.743.

Saria eskuratzeko bi
hilabeteko epea izanen
dute sarituek eta jate-
txera joan baino lehen
deitzea komeni da. Sa-
ridunaren txartela otor-
dua egin aitzinetik era-
kutsi beharko da.

Kiler Kider
Tarima eta parket flotatzaileak

KILENIUM Kider Industrias de la madera S.L.
enpresaren produktu bat da.
(Zuraren munduan mende erdia baino gehiagoko
esperientzia duen tarima eta parket flotatzaileen ekoizlea da Kider)

Leitzako erreplidea, 31740. Doneztebe. Nafarroa.
Tel. : 00 34 948 456 010 E-posta: kider@industriaskider.es
www.industriaskider.es

Etorri gure erakusketa ezagutzera

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

Pitti
eskabaziloak
Tel: 616 513 491

Mendakoa ibraia, 34 ZUBETA

SUNBILLA

Bortz txapel eskuratuta denboraldi bikaina egin dute Espelosin anaiek

Andonik txapel bat eskuratu du eta Iker anaia, berriz, lau

Jaione OTXANDORENA

Andoni eta Iker Espelosin pilotari gazteek denboraldi bikaina egin dute aurtengoan ere.

Andoni Espelosinek Herri Arteko txapelketa irabazi du eta bertze bi txapelketetako finalerara iristea ere lortu du, nahiz eta gero finaleratan galdu duen. Lehendabizikoa buruz buru, Irurritako Azpiroren aurka. Eta bigarrena, berriz, Azpiroz bera bikote zuela, Gipuzkoako Hitza txapelketan galdu zuen Ordiziako Iribarria eta Larrearen aurka.

Iker anaia, berriz, lau txapel irabazi ditu Enaitz Anso legasarrarekin batera: Altsasuko Txapelketan, Larraungo Igartua eta Soroari 18 eta 11 irabazi zie-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kontent daude Iker eta Andoni anaia bortz txapelak eskuetan dituztela.

ten; Herri Arteko finalerako igantziarrak garaitu zituzten; Ezkurra Memorialaren finalean Berako Migelena eta Maritorenari 18 eta 3 irabazi zieten eta Barañaingo txapelketan, Be-

rako bikote bera 8an utzi zuten.

Orain atsedean tiki bat hartuko dute abuztuaren bukaera arte gutti gorabehera, nahiz eta tartean Sunbillako txapelketa jokatu be-

harko duten. Zorionak bi anaiei!

Expo Zaragozara bidaia

Uztailaren 25erako Nafarroako Rural Kutzak bidaia antolatu du

Expo Zaragozara. Donetztebeko Bulegoak antolatu badu ere, Sunbillako bulegoan ere eman daiteke izena. Bidaia-aren balioa 50 eurokoa da, joan etorriko autobusa eta Exporako sarrerak barne. Autobusa 7:30ean aterako da Donetztebetik eta itzulera 00:30ean izanen da.

Buruhaundi eta erraldoiekin ibiltzeko jende bila

San Tiburtzio bestetan, buruhaundi eta erraldoiekin ibiltzeko jendea behar da. Interesatuak Guraso Elkarteari jakinarazi beharko diote, 607 446909 telefonora deituta. Aipatu, erraldoiekin ibiltzeko hautua egiten dutenek entsaioak egin beharko dituztela.

Lizun
GAZTANDEGIA

Etzeko Ardi Gazta

Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

IngeBrand Fernando Descalzo Echeverria

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Latsaga, 22 3^o Esk. • IGANTZI • 948 637 607 • 687 871 444
fernando.descalzo@telefonica.net

Kimetz
Bolarandanda

Uztailaren 14tik aitzinera irekia

D

««««H I R U K I D E»»»»

Eguzki-panelak ◀ ▶ Injirgizua
Elektrikitatea ◀ ▶ Aire egokitas
Industria mantenimendua ◀

Zelai industrialdea 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)
948 625 395 • email: zerbitzua@terra.es

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

BELPRA
JITETXEA

DONEZTEBE • 948 450 300

DONEZTEBE



Giro ederrean joan dira San Pedro bestak

Eduardo Oiartzabal zinegotziak bota zuen txupinazoa

ttipi-ttapa

Eduardo Oiartzabal zinegotziak botatako suziriarekin abiatu ziren aurtengo San Pedro bestak. Horrela hasi zituzten doneztebarrek borts egunez iraun zuten bestak. Tarte horretan kirola, musika, dantzak, jokuak, su artifizialak, gaztelu puzgarriak, erraldoiak... Denetarik ekitaldiekin gozatu zuten herritarrek eta kanpokoeak. Ekainaren 28an, erraldioen eta buruhandien topaketa

egin zen. Dena den, eskualdeko lehen topaleku handia bilakatzekoa zena, azkenean, herriko, Etxalarko eta Elizondokoena baino ez zen izan. San Pedro Egunean, banderaren dantzaz gain, Trapatan eta tradizioko bertze dantzak ikusteko aukera izan zen eliza atarian. Astelehenarekin, Gazte Burrenberen eta Ttikien Eguna izan zen, eta asteartean, heldu den urterarte agurtu zituzten bestak.



ARGAZKIAK: TELLETXEA

San Miguel eta Zelaieta krosekoko lehen herritarra

Uztailaren 20an, igandearekin, Baztandarren Biltzarra besta haundia berriz ere ailegatuko zaigu, behin Sanferminetako bes-tondoa pasatuta. Urtero bezala, Elizondoko karrikak jendez, musikaz eta kolorez beteko dira.

Goizean, Pedro Axular karrikan artisauen erakustaldia dagoen bitartean, Etxe Zaharretik abiatu, eta herrian barna buelta emanen dute orgek, dantzari eta txarangaren laguntzarekin. Ibilbidean barna, ikusleen artean sakabanaturik egonen dira epai-mahaikideak, eta bazkalondoa, orga garrailearen izena ezagutzera emanen dute.

Arratsaldean, presoan aldeko manifestaldia izanen da, eta besta akitzeko plazan dantzaldia. Aipatu, tartean Baztandarren Biltzarreko tonbolako az-

ken saria—1.560 euro—ozoketatuko dela.

Irurritako Gizarte Bilguneko ostatua emana

Patxi Elizetxe elizondarra izanen da Irurritako Gizarte Bilguneko ostatuaren ardura-duna. Bere proposamena onartu zuen bertako juntak eta moldaketa batzuk egin ondoren, hilabete honetan irekitzea espero da. Horrez gain, heldu den ikasturtean, eskolako jantokia bertan izanen da.

Baztan Zopak igandero Zigan

Baztan Zopak das-tatu nahi dituztenek horretarako aukera dute igandero Zigan. Etxezuri jatetxeak eskainiko du aukera hori, baina horretarako aitzinetik jakinarazi beharko zaie. Interesatuak telefono honetara deitu beharko dute: 948 452078.



ARTXIBOA

Orgen desfileak jende andana erakartzen du urtero.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Jabier Larralde omendu du Arizkunek

Sanjuan Egunean, Arizkungo bestetako egun nagusian, herriak Etxeberriko Jabier Larralde txistularia omendu zuen. Meza nagusiaren ondoren, mutil-dantzak izan behar zirenean, sorpresaz, Jabierri makila eta bere andre Angelesi lore sorta bat eman zieten Kotte Lizartzak, danbolin nagusiak, eta herriko alkatea eta omenduaren semea den Patxi Larraldek. Jabier Larralde herriz herri ezaguna dugu, bere lagun eta atabalarari Juan Miguel Iriarte bezala. Bere bizitzan Baztango folklore mailan egin duen lana nabarmentzekoa da, kantak eta dantzak berreskuratuz, erakutsiz...Honen lekuko da Baztango Folklorearen izenarekin argitaratu zuten diska bikoitza, Patxi semearekin batera. Bertan, mutildantzak eta jostaketa-dantzak edo irri-dantzak ageri dira.



Martiko
Pol. Zainan, 8/9.
31790 Gernu, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martikorekin zuzen sukaldari.

DENDA
ORDUTEGIA
ASTELEHNETIK
ORTZARALERA

8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara

Okindegia
Jatetxea

Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitate parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen errea,
goxo goxo!



Ordoki Industrialdea
Tfnua: 948 453 403
31713 ARIZKUN

SARA

Uztailean, hiru egunetatik bitan ekitaldiren bat izanen da plazan

Lapurdikoko oinetariaren bilgunea izanen da igandean herria

Xan HARRIAGUE

Aurten ere ez da ekitaldirik faltako udan. Turismo bulegoak uztaileko egitaraua atera berri du, eta kasiegunero ekitaldiren bat izanen da frontoian. Gehienak turistei begira antolatuak dira, baina gutti batzuetan herritarrek haien kontua aurkituko dute. Saratarrei zuzendutako besten artean, Zazpiak Bat dantza taldearen besta eginen da heldu den larunbatean zortzi, eta ondoko igandean, berriz, kermeza. Bietan dantza eta pilota erakustaldiak izanen dira, eta nola ez gosea asetzeko aukerak.

Gaineratiko ekitaldiei dagokionez, azken urteetan bezala segituko dute, astelehenetan, pilota partida txisteran, asteartetan, herri kirol saioa, eta asteazkenetan, dantza erakustaldia. Heldu den asteburuan egita-

raua zertxobait aldatuko da, larunbatean Espainiako dantzak ikusten ahalko baitira kiroldegian. Igandean udako lehen feria eta GR8aren egunaren txanda izanen da. Horietan ere ez da animaziorik faltako.

ZORTZIGARREN IBILBIDE LUZEA EDO GR8 DELAKOAREN EGUNA

Aurten ere, GR8 egunaren elkargunea gure herrian izanen da. Heldu den igandean Lapurdiko lau herritatik abiatuta oinetariak plazan elkartuko dira. Kanbotik hasiko direnak 28 kilometro egin beharko dituzte mendiz mendi. Bidean, Ezpeletakoak hartuko dituzte eta hauek 10 kilometro guttiago izanen dituzte egiteko. Azkenik, hurbilenak izanik, Senperetik eta Azkainetik abiatuko direnak 8 kilometro



ARGAZKIAK: IDOIA ERRANDONEA ETA UTZITAKOIA

Uda honetan ere ez da ekitaldirik faltako herrian.

UTZITAKO ARGAZKIA

Informazioaren gunea turistentzat
Turistentzako informazio tokiak ezarri berri dute Herriko Etxearen arkupean: infogunea. Horren bidez bisitariak begiratzen ahalko dute zernolako hotelak eta landetxeak dauden eskualdeko herrietan, baita logela librerik baduten ere. Zerbitzuan agertzeko hotel eta landetxeetako jabeek Novae enpresan izena eman behar dute 0559309178 telefono zenbakira deituz edo contact@novae-communication.com-en.



baizik ez dituzte egin beharko. Informazio gehiagorik nahi dutenek haien

herriko turismo bulegora dei dezakete. Parte hartzeko bi euro eta er-

di ordaindu beharko dira, jakinez itzultzeko autobusaren barne dela.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Irarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

LA VILLA
JATETXEA

IGANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90

HERRIKO ETXEO
ERANTZEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Maïxan eta Véronique

SARA

ZOANSA

MARKA GUZUEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkalegi Industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SENPERE

Bertso saioa eginen da Larraldea kultur etxean Amotzeko besten karietarat

Bertsolari gazteek kantatuko dute zaharberritua izan den baserrian

Franck DOLOSOR

Herriko bestak ederki iragan dira aurten ere. Momentu goxo ainitz izan da bortz egunez. Berrietasunen artean aipagarria da karrikako saltokiak apaindu dituzten herriko saltzaileek Laminak Amotzeko dituztela mozo-rroturik goxokiak banatzeko haurren artean.

Amotzeko bestak, berri-azteburuan eginen dira. Larunbateko arratsaldeko lasterkaldiaren ondotik, gauean Entzun taldeak alaituko du Sarako bidean den auzoa. Ilgande goizean, kaperak ateak idekiko ditu meza ospatzeko. Ondotik bertso bazkaria eginen da Larraldean zikiroarekin. Publikoaren saria bana-

tuko dute. Kristiñe Txoperena, Xan Alkhat, Patxi Iriart, Xumai Murua eta Mizel Mateo bertsolarien parte hartuko dute lehiaketa honetan. Gero, Peio eta Pantxoa bikote ospetsuak kantu goxoak eskainiko ditu. Amotzeko auzoan gazteak lan eta lan ari dira azken urteetan besta alai eta ikusgarriak prestatzeko.

Ohiturari jarraikiz, aurten ere su artifizialak izanen dira aintziraren uztailaren 13ko gauean, besta egunaren bezperan. Aurten, lehen aldikotz aintzirako besta komiteak besta ttiki bat prestatu du arratsean. Talo, edateko eta musikaz gozatuko da su artifizialen eta aintziraren inguruan.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Bigarren Jaunartzea

Orain bi ale, maiatzaren 18an herriko gazteek Lehen Jaunartzea egin zutela aipatu genuen. Bada, orain, ohiturari jarraikiz, bigarren komunionea egin dute.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Urrezko ezteiak

Ttipittoenean bizi diren Rodzen jaun-andereek Urrezko Ezteiak ospatu dituzte duela guti. Rodzen jauna Aturbekoa da sortzez eta Senpererat ezkondu zen Cherchebruit-ko zubia altxatzen ari zelarik ezagutu baitzuen bere andrea izanen zena. Ttipittoenean bi alaba eta bortz haur ttiki dituzte, horietako hiru etxean berean hazi dituzte aitaxi eta amatxik. Goresmenak.

edredoi-azal nordikoak

albornoak

ohe estalkiak

maindireak

mantelak

kuxinak

toallak

edredoi nordikoak

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

Erreka, igerileku eta hondartzarako toallak

Tafalla, 13 • IRUÑEA

948 230 634

EZKONTZAK

Antonio Elorga Galainena eta **Amaia Perurena Azkarraga**, Urdazubikoak, ekainaren 21ean Urdazubin.

Igor Otegi Elizetxe eta **Itziar Remente-gi Barrenetxe**, Urdazubikoak eta Anizkoa, ekainaren 28an Urdazubin.

Joseba Apezetxea Perurena eta **Miren Zubiondo Loiarde**, Goizuetakoa eta Hernanikoa, ekainaren 28an Goizuetan.

Aitor Etxeberria Lekuona eta **Reyes Osua Martin**, Berakoa eta Donostiakoa, ekainaren 14an Beran

Jose Manuel Ramirez Burgillo eta **Trinidad Amaia Madera Larretxea**, Irungoa eta Berakoa, ekainaren 21ean Beran.

Jose Ramon Calavia Zelaieta eta **M^a Angeles Apezetxe Santxotena**, Iruñekoa eta San Frantziskokoa, maiatzaren 31n Lekarozen.

Jose Miguel Jimenez Jodar eta **Lucia Alava Zaporta**, Iruñekoa eta Lesakakoa, maiatzaren 20an Lesakan.

Josu Kastro Taberna eta **Ainhoa Ordoki Kapdeki**, Lesakakoa, ekainaren 14an Lesakan.

Pascual Taberna Zubiria eta **Aurkene Urria Garro**, Lesakakakoa, ekainaren 21ean Lesakan.

Juan Mario Asto Mendoza eta **Leonor Huaman Quispe**, Perukoak, ekainaren 22an Lesakan.

Domingo Belaunzarán Mariezkurrena eta **Laura Zabaleta Atxutegi**, Iruñekoa eta Tolosakoa, ekainaren 21ean Leitza.

Aitor Martinez Gonzalez eta **Itziar Etxarte Elizondo**, Irungoa eta Oiartzungoa, ekainaren 28an Igantzin



SORTZEAK

Yoel Blanco Garcia, Berakoa, ekainaren 9an.

Eluska Ponbar Larralde, Berakoa, ekainaren 17an.

Mikel Cano Gutierrez, Berakoa, ekainaren 26an.

Onintza Goia Mitxelena, Berakoa, ekainaren 27an.

Amal Negga Nour ep, Elizondokoa, ekainaren 13an.

Nahia Telletxea Odriozola, Donamariakoa ekainaren 21ean.

Ekain Telletxea Odriozola, Donamariakoa ekainaren 21ean.

Eneko Urkiola Martin, Lesakakoa, ekainaren 13an.

Amaiur Martinez Olazabal, Lesakakoa, ekainaren 16an.

Ainitze Martinez Olazabal, Lesakakoa, ekainaren 16an.

Peru Urria Yecora, Lesakakoa, ekainaren 22an.

Goiuri Urria Yecora, Lesakakoa, ekainaren 22an.

Olarixu Urria Yecora, Lesakakoa, ekainaren 22an.

Beñat Portu Barinagarementeria, Leitza, ekainaren 29an.

Mikel Portu Barinagarementeria, Leitza, ekainaren 29an.



HERIOTZAK

M^a Pilar Salaberria Zubeldia, Goizuetakoa, ekainaren 29an, 79 urte.

Jose Maria Baraibar Ezkurdia, Leitza, ekainaren 18an, 67 urte.

Francisco Gastearena Mariezkurrena, Ezkurrakoa, ekainaren 21ean, 55 urte.

Victoria Regaña Gonzalez, Leitza, ekainaren 20an, 59 urte.

Angela Etxekolonea Jaunena, Zubieta, ekainaren 24an, 84 urte.

Miguel Erasun Iriarte, Beintza-Labaien-goa, ekainaren 25ean, 75 urte.

Nicolas Telletxea Fagoaga, Arantzakoa, ekainaren 26an, 91 urte.


Maria Alberro Zugarramurdi, Arraioz, ekainaren 27an, 90 urte.

M^a Cruz Etxeberria Etxeberria, Ituren-goa, ekainaren 28an, 82 urte.

Anunciacion Agesta Arburua, Etxalar, ekainaren 29an, 93 urte.



Bera	948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA	
Doneztebe	948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA	
Elizondo	948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	
Leitza	948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA	
Lesaka	948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA	



Encarnacion ALZUGARAY

Lesakan, 2007ko uztailaren 19an

I. URTEURRENA

2007ko uztailaren 19an zure begiek betirako galdu zuten argia, zure magalin zorionez izan ginen haziak, bertso honekin ordaindu nahi dizugu gugatik egindako guztia.

MAITE ZAITUGU!

ZURE FAMILIA



Joxemi JORAJURIA

Elgorriagan, maiatzaren 27an

Bizitzak guregandik goiz urrundu zaitu, baina beti gure bihotzetan egonen zara.

LORENA, LARATZ eta NAROA

PILOTA

Joxe Ezkurra XVII. Memorialaren finalak jokatu dira

Ttikietatik hasi eta gazteen maila bitarte 9 partida jokatu ziren

ttipi-ttapa

Ekainaren 22an jokatu ziren Doneztebe-ko udal pilotalekuan Joxe Ezkurraren omenez antolatutako XVII. pilota txapelketako finalak. Aurten gainera, Txaruta Pilota Elkarteak omenaldia eskaini zion hainbortze urtetan taldean lanean aritutako Martin Beginori.

Ttikien mailatik hasita gazteen maila bitarte 230 pilotarik parte hartu dute aurten txapelketa honetan: 12 pilotarik ttikien mailan; 52k umeetan; 68k kimuetan; 24k haurretan;

40k kadeteetan eta 24k gazteen kategorian.

Ttikien B mailan, Berako Oier Larretxea eta Xiker Lizardik 18 eta 14 irabazi zuten Ibai Merino eta Kaiet Juanena elizondarraren kontra.

Umeen B mailan, Elizondora joan zen txapela. Ander Jaurena eta Ibon Irazokik Julen Larretxea doneztebarrari eta Irurritako Iñigo Dendarietari 18 eta 16 irabazi zieten. **Umeen A mailan,** berriz, Oronoz Mugairiko Enaitz Ansok eta Sunbillako Iker Espelosinek 3 tantotan utzi



ARGAZKIA: ZALDUA

Txapelketan guztira 230 lagunek parte hartu duten arren, horietako batzuk izan zuten ekainaren 22an jokaturako finaletan jokatzeko aukera.

zituzten Harri Maritorea eta Peio Migelena beratarak.

Kimuen B mailan, elizondarren arteko finala jokatu zen. Asier Bertiz eta Sergio Oskozek 18 eta 6 irabazi zioten Iñaki Irazoki eta Iñaki Antsori. **A mailan,** berriz, Berara joan zen garaipena: Andoni Lazkanotegi eta Beñat Mitxelenak 18 eta 5 irabazi zieten Donibane-ko Unai Laso eta Joanes Bakaikoari.

Haurren A mailan Arkaitz Untxalo iturndarrak eta Joseba Apeztegia iruritarak 18 eta 6ko markagailuarekin garaitu zituzten Elizondoko Dario Trantxe eta Amaiurko Iban Inda.

Kadeteen B mailan, bertalde, Doneztebe-ko Irail Zestauk eta Almandozko Ismael Agestak 9an utzi zituzten Oronozko Mattin Apezetxea eta Joseba Arizmendi.

Kadeteen A mailan,

Saldiasoko Aritz Juaneak eta Amaiurko Antton Jauregik Eratsungo Bendoiro eta Burlatoko Mina izan zituzten aurrez aurre, eta 18 eta 12 irabazi zuten lehendabizikoek.

Gazteen A mailako partida jokatu zen eguneko finalei akabera emateko. Unai Mada-riaga urroztarrak eta Garcia burlatarrak 22 eta 12 irabazi zioten Aiestaran eta Pazos Irurtzungo bikoteari.

TXIRRINDULARITZA

'La Miguel Indurain' lasterketa uztailaren 27an egingen da Beran

Bi ibilbide aukeran: 186 eta 113 kilometrotakoak

ttipi-ttapa

Beratarra txirrindulari taldeak antolatuta, uztailaren 27an jokaturako da La Miguel Indurain lasterketaren XVII. edizioa. Txirrindulariek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 08:30ean abiatuko den A ibilbidea, 186 kilometrokoa, eta 09:00etan hasiko den B ibilbidea, 113 kilometrokoa. Izena emateko epea zabalik dago:

Internet bidez egiteko www.laindurain.com web orrian egin daiteke. Hilaren 25eko 15:00ak baino lehen egin behar da. Postaz, berriz, P.K. 26, 31780 Bera helbidera idatzi behar da. Lasterketa aituzineko egunetan ere izena eman ahal izanen da. Uztailaren 26an 15:30etik 21:00etara eta uztailaren 27an 06:30etik 08:30era.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa izen emateko orria, federazioko lizentziaren kopia eta ordainketaren ziurtagiria dira. Ordainketa egiteko kontu zenbakia hau da: 3008 008 05107039221. 23 euro ordaindu behar duzute federatuek eta 28 euro federatu gabekoek. Horrez gain, txipak 10 euro balio ditu.



ARTXIBOA

Miguel Indurainen omenez egiten den lasterketa honek XVII. edizioa izanen du aurtengoa.



Beñat TXOPERENA

Igantzioko txirrindularia

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Aitor AROTZENA

Duela urte batzuk, kategoria tiki-takoko pilota txapelketak irabaziz ezagutu genuen Beñat Txoperena igantziarra. Kadetetako lehen urtera arte pilotan aritu zen. Pilotarien familiakoa da, aitatxitik hasita. Oskar bere aita eta Mitxel bere osaba Munduko txapelketetan eta Bartzelonako Olimpiadetan ere aritutakoak dira.

Baina pilotarako afizio hori apaldu eta txirrindularitza arakoa sortu zitzaion duela pare bat urte. «Kadetetako lehenbiziko urtean biak batera egiten hasi nintzen, bizikleta eta pilota, baina bat edo bertzea aukeratu beharra zegoen. Pilotaz pixka bat aspertua nintzen eta bizikleta aunitz gustatzen zitzaidanez, horretan hastea erabaki nuen».

Ez hasi bakarrik. Maiatzaren 3an, Nafarroako mendi bizikleta txapelketa irabazi zuen junior mailan. Baina ordurako errepideko bizikletan ere hasia zen, Caja Rural taldean. Ez ditu lasterketa aunitz egin errepidean, baina guzietan hamar lehenbizikoe-tan sailkatu da. Baina Txoperena gaz-

teak junior edo gazte mailako txirrindulariei zuzendutako Gipuzkoako Itzulian eman zuen ezusterik haundiena. Inoiz ez zuen lau eguneko probarik egin igantziar gazteak eta hogeitahenbizikoen artean gelditzea zuen helburu. Lehen eguneko erlojuaren kontrako proban irabazleak baino 22 segundo gehiago behar izan zituen.

OLABERRIAKO KAXKOAN LEHEN GARAIPENA ETA MAILLOT HORIA

Baina lehen etapan, erakustaldia eskaini zuen Olaberriako kaxkoan. Eraso jo eta bakar-bakarrik sartu zen helmugara. «Hagitz gogorra egin zitzaidan, taldetik eskapatu eta helmugara bitarte hagitz luzea egin zitzaidan, aunitz sufritu nuen, gehien bat etapa horretan». Bere lehen garai-

«Nafarroako txapelkun izan nintzenetik mendi bizikleta ez dut ukitu ere egin. Errepidekoa gehiago gustatzen zait eta horretan zentratuko naiz»

«Parte hartu dudan lehen itzulia irabaztea ezuste haundia eta pozgarria izan da»

• Beñat Txoperenak 16 urte bete zituen abenduan. 14 urtera arte pilotan ongi aritu baldin bazen ere, bizikletan hasi zen. Aurten, mendi bizikletan Nafarroako txapelkun izan da junior mailan.

• Mendi bizikletatik errepidera pasatu eta Gipuzkoako Itzulia irabazi zuen. Lau eguneko lehen lasterketa zuen eta ezuste haundia eman zuen. «Ez nuen uste maila horretan ibiltzeko gai izanen nintzenik».

• Aitzinera begira, uztailean, egun bakarreko probatan parte hartu nahi luke eta abuztu hasieran korritzen den Iruñeko Itzulia dauka begiz joa. «Maila ona ematen saiatuko naiz».

pena ez ezik, maillot horia jantzi zuen. Beñaten arerio guziak bera baino zaharragoak eta esperientzia gehiago-koak zirenez, bazirudien abudo galduko zuela maillota, baina azken bi egunetan ongi eutsi zion. «Maillota defendatzen saiatu beharra zegoen eta taldeak ere horretan aunitz lagundu nau. Azkenean lortu genuen!».

Bere burua «eskaladoretzat» du Beñatek, baina bertze arlotan ere ongi ibili da itzuli honetan.

Honela, maillotez, garaikurrez eta txapelez ongi hornitua bueltatu da Beñat Txoperena bere lehen itzuli haunditik. Olaberriako etapa irabazteagatik, junior kategoria osoko irabazlea eta lehen urteko juniorren irabazlea. Ezin gehiago eskatu!

Mendi bizikletan junior mailan Nafarroako txapelketa bada ere, Txoperena gazteak errepideko bizikletaren aukera hartu duela aipatu digu. «Mendia arrontean utzia dut eta mendiko bizikleta ez dut hartu ere egin Nafarroako txapelketa irabazi nuenetik. Karreterakoa gehiago gustatzen zait eta horretan zentratuko naiz».

HERRI KIROLAK

Iparraldeko Joku Torneoaren hainbat garaipen gelditu dira eskualdean

Etxegaraik hiru segundogatik lortu du Euskal Herriko koxkor biltze txapelketarako txartela

ttipi-ttapa

Ekainaren 29an jokatu zen Orbaizetan Iparraldeko Joku Torneoaren azken jardunaldia.

Koxkor biltzen, Berriozarko Josu Jimenez izan zen azkarrena, eta bigarren postua Berriozarko Iñaki Ekisoainek eskuratu zuen. Hirugarren postua, Berako Fernando Etxegaraik eskuratu zuen. Horrela erranda, badirudi postu kaxkara egin zuela Berako kirolariak, baina kontuan hartu behar da goizean Iزابako Camille Extreme proba gogorra irabazita agertu zela Orbaizetara. Izan ere, Iparraldeko Joku Torneoeko hiru probetatik bitako den-

borak hartzen dira kontuan sailkapen orokorra egiterakoan eta Etxegaraik bakarrean parte hartu zuen. Nafarroako nahiz Euskal Herriko txapelketan parte hartu ahal izateko nahitaezkoa zuen Orbaizetan ere parte hartzea eta horixe egin zuen. Gainera, sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuen, hiru segundo eskasengatik. Honenbertez, abuztuaren 15ean, Baliarrainen (Gipuzkoa) jokatu den Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuen, Berriozarko Josu Jimenezekin batera.

Irailaren 27an Iganztzin eginen den Nafarroako txapelketan, berriz, Ji-

menez eta Etxegarairekin batera, Ekisoain, Patxi Irazoki igantziarra eta Andoni Lasaga etxalartarra ariko dira.

Ingude altxatzen lehen bisaietan baino garaipen garbiagoa lortu zuen Xabi Sein igantziarrak. 66 jasoaldi egin zituen, Joakin Aioroa iturrendarrak baino 3 gehiago. Carlos Seinek 61 jasoaldi egin zituen eta Berako Ander Mitxelenak eta Berriozarko Asier Urbistondok 53na. Sailkapen orokorrean ere Xabi Sein nagusitu zen; bigarren Aioroa; hirugarren Carlos Sein; Mitxelena laugarren eta Asier Urbistondo bortzgarren.

Harri jasotzeko azken



ARTXIBOA

Xabi Sein garaile izan da aurtun ere ingudearekin.

saioan ez zuten ez Unai Bertizek ez Josetxo Urrutiak ere parte hartzerik izan. Hortaz, lehenbiziko bisaietako markak kontuan hartu ziren sailkapen orokorra osatzeko. Unai Bertiz sunbildarra nagusitu zen eta Josetxo Urrutia leitzarria bigarren izan zen.

Lasto altxatzen lehia estua izan zuten Xabi Seinek eta Oskar Telletxeak. Hamaikana altxaldi egin zituzten, baina 12.a egiteko 3 segundo-behar izan zituen Seinek eta 5 segundo Telletxe-

ak. Carlos Sein gelditu zen hirugarren.

Txingetan, lehen bisaietan jaun eta jabe izan zen Miguel Angel Sukuntza leitzarria ez zela plazaratu aprobetxatuz, Jabier Galarregi etxalartarra nagusitu zen. Bigarren izan zen Berriozarko Imanol Martin. Sailkapen orokorrean, dena den, Miguel Angel Sukuntza izan zen garaile; Jabier Galarregi bigarren; Imanol Martin hirugarren; Josetxo Urrutia laugarren eta Joseba Petriren beratarra bortzgarren.

AIZKORA

Euskal Herriko Gazte Mailako txapela jantzi du Ander Erasunek

Bertzalde, Nafarroako 2. mailako finalerako sailkatu da

ttipi-ttapa

Bigarren urtez segidan irabazi du Euskal Herriko Gazte Mailako Txapelketa Ander Erasunek aurtiztarrek. Ekainaren 24an, San Juan Egunez jokatu zen txapelketa Andoainen eta Oihan Laretxea bigarren sailkatuari 22 segundoko alde kendu zion. Gainera, Erasunek azken zaz-

pi urteotako markarik onena egin zuen. Iaz berak egin zuen denborarik onena (10:37) lau 45 ontzako eta bi kanaerdiko mozteko eta aurtun 14 segundoan hobetu du, 10:23ko lana eginez.

Lau aizkolari gazte aritu ziren lehen Andoaingo plazan. Arkaitz Olano leitzarria ere aritzekoa zen, baina ez zuen par-

te hartzerik izan. Ruben Saralegi leitzarria hirugarren izan zen eta Zumarragako Julen Aranbarri laugarren.

Bertzalde, ekainaren 28an jokatu zen Nafarroako 2. mailako aizkolari txapelketaren kanporaketa. 13 aizkolari aritu ziren finalerako bortz txartelen bila. Denborarik onena Erasunek egin



ARTXIBOA

Berriki Urrezko Aizkorako txapela ere eskuratu du Erasunek 18 urtez beheitiko kategorian.

zuen. Bigarren postua Luis Mari Belarra donetztebarrantzat izan

zen. Bi hauek izanen dira eskualdeko ordezkari bakarrak finalean.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

OSPAKIZUNAK

ELIZONDO

Uztailaren 20an, Baztandarren Biltzarra.

LEKAROZ

Abuztuaren 29tik 31ra, Gaztetxoan kulturarteko topaketa. Parte hartzeko deitu 948 581327 edo 679435174ra.

LESAKA

Uztailaren 26an, Bidasoaldeko XI. Gazteen Folklore Jaialdia. 19:30ean kalejira karriketan; 20:00etan jaialdia Plaza Zaharrean.

IKASTAROAK

AMAIUR

Uztailaren 30etik abenduaren 14ra, Amaiur eta Nafarroako Erresumako Gazteluak-ei buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Informazio gehiago: www.ueu.org edo www.aranzadi-zientzia.orgen.

LEHIAKETAK

BERA

Uztailaren 25a bitarte, lorez apaindutako balkoi eta leihoen lehiaketa.

AUTO IGOERAK

ARANO

Uztailaren 19an, VII. auto igoera. Xehetasunak 20. orrialdean.

FERIAK

SARA

Uztailaren 3az geroztik, ortzegunero merkatua.

ELIZONDO

Uztailaren 26an, Baztan-Bidasoako artisauen feria, Foruen Plazan. Goizetik eguerdira bitarte.

TELEBISTAKO TXOKOA



Bete-betean murgildu da besta giroan ttipi-ttapa

HERRIETAKO BESTETAKO IRUDIAK IKUSGAI

Doneztebeko San Pedro bestekin ekin zion **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** udako *bestaz besta* saioari. Ondotik, Lesakako Sanferminen txanda etorri zen. Urtero bezala, egunez egun, Doneztebeko eta Lesakako besta-giroa pantaila ttikian bildu zuten **TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO** lankideek ikusleen gozamenarako. Bada, bestetako irudirik ikusgarrienak, elkarrizketa saltseroenak eta bertzelako ekitaldiak jasotzen dituzten DVD eta bideoak ere prest dituzte, eta etxean eduki nahi duenak, oraindik badi aukera. Bestetako bideoa edo DVDA eskatzeko 948 635458 telefonora deitu behar da; Donez-

tebekoekin hasi eta Etxalar eta Arantzako Amabirjinak arte, gure eskualdeko besta gehientsuenen lekuko izanen dira **TTIPI-TTAPAKO** kamarak.

BAZTANDARREN BILTZARRA TTIPI-TTAPAN

Bertzelako bestei ere tarte eskainiz, uztailaren 20an Elizondoren den Baztandarren Biltzarra besta haundiaren irudiak ere emitituko dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**. Herrietako orgen desfilea, eskulan erakusketa, herri bazkaria... Baztandarren besta haundi honen giroa gure etxeetara ekarriko digute.

DISKAK



Zuretzat

EZINEAN

GOR, 2008

EZINEAN taldea 2001. urtearen inguruan sortu zen, «hardcore melodikoaren laguntzaz ondopasatzeko asmotan». 2005ean kaleratua izan ez zen maketa batek izandako arrakasta zela eta, 2006an euren lehen diskoa argitaratu zuten. Lehenbiziko lan honek harrera ona izan zuen eta Euskal Herriaren nahiz kanpoan ia 70 kontzertu eskaini zituzten. 2007an lehenbiziko diskoari zegokion kontzertu bira bukatu eta bigarrena prestatzen hasi ziren. Oihan Lizasok denbora arazoenatik talde utzi zuen eta laukote formatua mantentze aldera, Jon Regaño hasi zen taldean. Orain kalean da lan berria, 15 abestiz osatutako lana. Iban Amenaabar da gitarra baxua eta ahotsa; Jon Regaño gitarra eta korua; Oier Ezeizta gitarrarekin eta Oihan Amezua bateriarekin. Informazio gehiagorako: www.ezinean.com.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (ekainaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 22,00 € (=)

Zerri gizena
1,270 € kilo. (-0,005)

Zerramak:
0,510€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,01 (=)

1.koa 3,71 (=)

2.koa 3,05 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,11 (=)

1.koa 3,81 (=)

2.koa 3,15 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 130,00 (=)

idixkoak 198,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,70/6,50

8-10 kilokoak: 4,80/5,30



• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com

betikopvc@terra.es

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxe: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituko
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK


601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak



Baztango
promoción inmobiliaria

AUKERAK:
BERA: 73m²ko pisua, 138.000 euro.
LESAKA: 88m²ko pisua, 138.000 euro.
NARBARTE: 80m²ko pisua, 138.000 euro.
ELIZONDO: 60m²ko pisua, 126.000 euro.

BIGARREN ESKUKOAK:
BERA: Herrigunean pisuak, egoera onean eta igogailuarekin.
LESAKA: Herrigunean 80 m², 88 m², 109 m² eta 218 m²ko pisuak.
ETXALAR: Herrigunean 189 m²ko pisua, lurrarekin.
SUNBILLA: Familia bakarreko 308 m²ko eta 110 m²ko etxebizitzak, biak lur eremuarekin.
DONEYTEBE: Herrigunean 72 m²ko pisua eta bajera.

LUR EREMU URBANOAK:
BERA, ETXALAR, SUNBILLA eta GAZTELU.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA
HIRIGINTZA PLANGINTZAK
LUR EREMUEN KUDEAKETA
BALORAZIOAK

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera, Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BULDAIN
INMOBILIARIA

Leiztan:
Azpiberrita baserria 1000m² lur eremuarekin salgai.
240.000€
Amazal, 37 behe - LEITZA
T:948 375 534 - 948 478 815

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia

bakarreko etxearen proiektua, lurrarekin eta lizentziarekin salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. ☎678 526091.



ZUGARRAMURDI. Bifamiliarentzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela-jangela, itxitako garajea. 600m²ko lorategia. 295.000euro. ☎615 7444433.

DONEYTEBEINGURUAN. Etxe adosatu politat salgai. Sartzeko prest. ☎666044176.

GAZTELU. 50 m²ko pisua salgai. 2 logela, sukaldia-bainugela eta trasteleku. 138.000euro. ☎620 345175.

DONEYTEBE. 100 m²ko pisua salgai Zazpigarutze auzoan. ☎639 184210.

LESAKA. Bittiria plazan pi-

sua salgai. Mobeztatua eta berritua, sartzeko prest. Egoera onean: Prezioa: 195.000euro. ☎650405532.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan emateko

TWIN PEAKS. Familia euskaldun batek estudio bat errentan emanen luke epe motzetarako. San Frantzisko Unibertsitatearen ondoren, leku lasaia eta autobus geltokitik hurbil. Harrera pribatua, bainugela, hozkailua, ohe-sofa, telebista... *aupasf@gmail.com*.

EXPO ZARAGOZA. Hiri erdian dagoen pisu batean logelak errentan emateko. ☎656 406645.

BERA. Herri erdian pisua errentan emateko. 3 logela, berokuntza eta egoera onean. ☎617 024325.

Doneytebe, Zazpigarutze
115 m²ko pisua salgai
3 logela, 2 bainugela eta
bainugela-jangela eta
trastelekuarekin.
630 948271

GARAJEAK/LOKALAK

107 Salgai

LEITZA. Sagastimarrea Kooperatiban garajea salgai. Itxia eta bi lehiu dituen. ☎619 486276.

LESAKA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

DONEYTEBE. Herrigunean 135m²ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Leitza errepidearen eta Urrotzerako errepidearen bidegurutzetan. Aparkalekuarekin. ☎687 736969/948 451783.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan emateko

DONEYTEBE. Elizagibela

karrikan 75 m²ko lokala errentan emateko. ☎646799828.

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Etxeko sorrerakontuak konpromisoak gabe

Jose Miguel Corralles
Tel. 948 634 008 - 647 810 144
C/Leiztan, 22B/23

LANA

301 Eskariak

ARANTZA. Ostalaritzan 20 urteko esperientzia duen gizona lan egiteko. ☎948 634024 (Luis Mari).

LANA

302 Eskaintzak

ELIZONDO. Ileapaindegi batean neska bat behar da lan egiteko. ☎948 452467.

BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK aldean erakuntzan aritzeko langile ofiziala behar da. Baldintza onak. ☎619 469784.

LESAKA. Leiho montatzaileria behar da. ☎948 638297/626 312326.

IRUN. Ola sagardotegian mantenimenduan aritzeko langilea behar da. Sagastiar garbitzeko... ☎659 285620.

BERA. Ibardingo benta batean bi sukaldari laguntzaileria behar dira. ☎629 086700.

OITZ. Fregaderan lan egiteko langilea eta zerbitzaria behar dira asteburuetarako. ☎948 451951.

Begirale tituludun pertsona behar da aterpe batean. Uztailaren 11tik 20ra. Udaleku itxiak. ☎628 947253.

MOTORRA

501 Salerosketak

Xsara HDI 1.9-90 zaldi sal-

gai. Egoera onean, 2004ko urrikoa. ☎650 948330.

Audi A4 Avant 2.0 TDI 140 autoa salgai, 2005eko urrikoa. 91.000 km, gps-a, laruzko besaulkiak, aparkatzeko sensoreak... Ekipatua eta egoera onean. 23.000 euro. ☎669 312220.



Bi kotxe salgai: **Nissan Almera (NA-AV)** eta **Citroën ZX (NA-AL)**. ☎948 615029/660 916833.

Honda CR **motorra** salgai, 250 cckoa. ☎666 146508.



Peugeot 306 salgai, 1995eko, 200.000 kilometroekin. Egoera onean. 2.500 eurotan. ☎678 946813.



Fiat Scudo ELX-JTD autoa salgai, 109 zaldikoa. 3 urtekoa eta hagitz egoera onean. 76.000 kilometro. ☎948 451787.

Rieju markako **motorra** salgai, 55 cckoa. Egoera onean. Prezioa: 1.000 euro. ☎639 919722.

Suzuki GSxR 600 salgai. Extra aunitz. Latigillo metalikoak, tubo-eskapea Leo-Vince, kupula urdina eta

abar. 29.000 km. Arras egoera onean. ☎661 931727.

Honda markako bigarren eskuko **motorra** salgai. Dominator 650 cc. 47.000 kilometro eta egoera onean. ☎696 694405 (arratsetan).



Peugeot 206 HDI urdina salgai. 45.000 kilometro. 2003ko apirilkoa eta egoera onean. ☎617 076614.

MOTORRA 502 Tailerrak



MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

TALLERES SANTESTEBAN 948 450282 • DONEZTEBE

ESKAINTZAK
Traffic 9 plazakoa, 2007koa
Clio III 1.5 DCI, 2007koa
Suzuki Santana, 2006koa
Peugeot 307 1.6, 2005koa
Scenic 1.5 DCI 105 CV, 2007koa
Megane II 1.5 DCI 105 CV, 2007koa
Kangoo Luxe 1.5 DIC, 2006koa

BIGARREN ESKUKOAK
Peugeot 406, Clio Confort 1.5 DCI, Citroen C-15 1.8 D, Laguna 1.8, Renault Megane 1.6 90 CV, Kangoo 1.9 D.

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Border Collie arrazako **zakurkumea** salgai, 5 hilabetekoa. ☎628 604512.

Cocker arrazako **hiru zakurkume** salgai. Marroiak eta beltzak. Hiru hilabete eta erdi. ☎948 387016.

Pastor aleman arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎659 256848.

Collie arrazako nahasketako bi **zakurkume** salgai. Hilabete eta erdi. Baserrira-ko onak. ☎948 451645.

DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

BERA. Altzate karrika aldean eskuko erlojua aurkitu da ekainaren 7-8ko asteburuan. ☎948 631313.

BERA. Betaurreko marroiak agertu dira Berako Mafre aseguru-etxearen inguruan. ☎948 631014.

BERA. Alkaiagako trenbidearen inguruan bi giltza eta Renault Senperreko giltzatak galdu dira. ☎948 630881.

DENETARIK 702 Salerosketak

Esmena markako **apala** eta lanerako **mahaia** salgai (urdinak eta naranjak). Egitura metalikoa eta apal aglomeratuak. ☎686 487698.

LG markako **haize egokitu**, **bero** eta **hezetasuna kentzeko makina** salgai, egoera onean. Modeloa LG P03AH. ☎686 487698.

Traktorentzako gurdia salgai. MMA, 3.000 kilo, 1,5 metroko zabalera eta 2 metroko luzera. Esku-freno eta bolketarekin. 450 euro. ☎645 013213.

Garraio txartel nazionala salgai. ☎618 962613.


Lehenagoko **harlosa lodia** salgai, gainarrietarako aproposa. Urte eta erdiko Spaniel arrazako **zakurra** salgai, ehizan hasia. **Eskopeta** gainjarria eta 22ko **erri-flea** salgai. ☎636 744310.

Extrona markako **konejoen kaiolak** salgai. 15 euro bakoitzeko. ☎608 876456.

Ahotza eta **belar idorra** salgai. Pakete haundiak (4-6 lokarrikoak) eta tikiak 14 pakete lotuak. Garagarra, garia eta oloa urte guztian eskaintzen da. ☎943366040/607 457004.

Presako salmenta. Larruzko **sofa** marroia, eroso, 150 eurotan; **ohe-sofa**

granate eta beltza bertapizatua, 150 eurotan; **koltxoia** eta **kanapea** 90x190cm, gutti erabilia, 100 eurotan; pertsona batentzako **besaulkia**, 30 eurotan. Guztiak Iruenen ikusgai. ☎943 618424.



Logela salgai: 1,05 metroko ohea, koltxoia eta somierrarekin; 2 gau-mahai eta idaz-nahaia bere apartarekin. Gaztainarekin egi-

marimore

zure irudia telebistan ikusi nahi duzu?

Bidali zure argazkia marimore@ttipi.net helbidera eta marimore saioan aterako da.

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



OIHANA. Erdi mallerrekarra den neska preioxoa *mayor de edad* egin zaigu ekainaren 28an 18 urte beteta. Maite zaituzten Iraizozko bi laguneren partetik disfrutatul!



GARAZI MIGELTORENA MITXELENA lesakarrak uztailaren 23an 6 urte beteko ditu. Zorionak Mixki eta Luliren partetik.



GARAZI MIGELTORENA MITXELENA lesakarrak uztailaren 23an 6 urte beteko ditu. Zorionak atta eta amaren partetik.



Gure **NAROA** sorgintxoak 4 urte bete ditu uztailaren 5ean eta beste bi moñoñek, **ALAI**NEK eta **OLAIA**K, urtea beteko dute uztailaren 24an. Izeba Ainhoa eta osaba Egoitzen partetik muxu potolo bat!




OLAIA eta **ALAI**NEK urtea beteko dute uztailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familia eta bereziki Naroaren partetik.



NAROAK uztailaren 5ean 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia eta bereziki Olaia eta Alaineren partetik.



OLAIA MENDIBURU TELLETXEA elizondarrak 5 urte bete ditu uztailaren 2an. Zorionak sorgintxo familia guztiaren partetik eta bereziki Iraizzen partetik.



GORKA beratarrek 4 urte bete ditu ekainaren 30ean. Zorionak Xarparen partetik!



GORKA beratarrek 4 urte bete ditu ekainaren 30ean. Zorionak eta lau muxu haundi familia guztiaren partetik.



MIKEL LIZASOAIN Donamariako motorzale hoberenari zorionak bere 6. urtebetetzean! Ama, Maialen eta Unairen partetik muxu haundi bat.



Auniz urtez ataxki eta hiru iloba-txiki! Etxalarko **AIERTEK** urteak bete ditu uztailaren 1ean; uztailaren 8an **JOXEK**; eta uztailaren 21ean **ALAZNEK** eta **NAROA**K urteak beteko dituzte. Muxu haundi bat baserriko familiaren partetik.



KEPA TELLETXEA IRISARRI etxalartarrak 2 urte beteko ditu uztailaren 14an. Zorionak familia guztiaren partetik.



NAHIA AGIRRE JORAJURIA beratarrek 2 urte beteko ditu uztailaren 20an. Auniz urtez Kuxi eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRIA GARRAUS**. Uztailaren 23an 3 urte beteko ditu gure erraldoi txikiak. Nahiz eta txikia zaren erraldoi batek hainbeste goxotasun ematen diguzu. Zorionak Lesakako aitaxi eta amatxiren partetik.



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRIA GARRAUS**ek uztailaren 23an 3 urte beteko ditu. Zorionak gizontxo eta muxu bero bat Arzallus eta Toñiren partetik.



CHRISTELLE GARCIA uztailaren 31n urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



JULEN eta **NAHIA ITURRIA GARCIA** beratarrek 4 urte beteko dituzte uztailaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat zuen familiaren partetik.



Elko-Nevadako **MITHELL OWSELEY IGOAK** 10 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Lakuntzako **MADDI SAN SEBASTIAN** ARRAIZAK abuztuaren 13an lau urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta egun ona pasa. Mila muxu



Doneztebeko **ELOY GARCIA**ri zorionak uztailaren 18an 10 urte beteko dituelako. Hamar muxu bere familia guztiaren partetik, bereziki Dani, Erik eta Izeba Loliren partetik.



Goizuetako **IKER MIRANDAK** 8 urte beteko ditu uztailaren 10ean. Muxu haundi bat atta, ama eta Oierren partetik. Zorionak bihotza!



Etxalarko **AIMAR** eta **EÑAUTEK** 7 eta 15 urte beteko dituzte uztailaren 8an eta 27an. Mila kilo zorion ebekoen partetik. Muxu bana!



AIERT, ALAZNE eta **NAROA IRIGOIEN** anai-arrebek eta beren lehengusina den **NEREA IPARRAGIRREK** 5, 2 eta 11 urte beteko dituzte uztailaren 1ean, 21ean eta 12an. Zorionak eta muxu handi bana familia guztiaren partetik.



NEREA SARRAITEA almandoztarrek uztailaren 8an 5 urte bete ditu. Muxu haundi bat familiaren eta bereziki Oihane ahizparen partetik.



Auniz urtez! Uztailaren 13an urteak beteko ditu gure mutiko koxkorrek! Muxu haundi bat eta ongi pasa eguna!



Zorionak Iruritako **EVA** eta Zubietako **KARMELE** eta **ENDIKA** izeba-lobei. **EVAK** uztailaren 18an beteko ditu urteak, **KARMELEK** uztailaren 13an 9 urte bete ditu eta **ENDIKAK** 2 urte uztailaren 1ean. Zorionak familiaren partetik eta ongi pasa zorion eguna!



Doneztebeko **IORITZEK** 4 urte beteko ditu uztailaren 12an. Zorionak eta muxu bat gure pottokori familiaren eta bereziki Jonaien partetik.

**ZORIONTZEA
ERRAZA DA**

www.ttipi.net

Animatu

AUTOMOBILEN AZOKA

uztailak 19 eta 20

Zalain Motor eta Berauto instalakuntzetan



- Mota guztietako autoak
 - IA BERRIAK
 - AUKERAKOAK
 - INDUSTRIALAK
- Zure autoa ordainketa zati gisa onartzen dugu.
- Azokan autoa erosita kit esku askea opari
- Auto berrietan preziorik onenak

Anima zaitez!!!



N-121-A errepidea, 73. km



Lasao

• egurrezko altzarria

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA
 Tfnoa: 943 15 11 82 · Faxa: 943 15 10 98
 e-posta: informacion@lasao.com
www.lasao.com



deskontuak
DENDA HAUETAN EROSTEAGATIK

KATTALINGORRI

KATTALINGORRI • ELIZONDO
%10eko deskontua

ETXARTE

ETXARTE Bitxi-denda • LESAKA
%10eko deskontua bitxietan

DATUCELAY

DATUCELAY tailerra • ELIZONDO
%10eko deskontua batera eta amortiguadoreetan

MASTER

ALTZURI

ALTZURI Etxetresnak • LESAKA
%5eko deskontua etxetresnetan

IPARLA
kirolak

IPARLA Kirolak • ELIZONDO
%8ko deskontua 30€tik gorako gastuan

OSTIZ

OSTIZ Zapata-denda • DONEZTEBE
%10eko deskontua

SARIDUNAK:

- 1 8 liburu (Erein):
Juani Altxu (Ituren)
 - 2 Nafarroa Oinez lotea:
Xabier Ballarena (Erratzu)
 - 3 Txapela buruan 2 kamiseta:
M^a Dolores Barno (Elizondoko)
Garbiñe Sarasola (Lesaka)
 - 4 Baztandarren Biltzarrako kamiseta eta zapia:
Amaja Arretxea (Sunbilla)
M^a Eugenia Sagardoi (Etxalar)
 - 5 Oninart 2 kamiseta:
Arantxi Diez (Zubieta)
 - 6 Sorgina mahai-jokoa (Urtxintxa):
Pakita Baleztena (Aurtitz)
- SENDAVIVA** 4 sarrera
Eneritz Loiarde (Goizueta)
- AQUARIUM** 2 sarrera
Adela Arlegi (Bera)

ORAIN www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58 telefonoz



ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

14 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelehenerik ostiralera
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58

1 ZAZPI LIBURU

Pela Telleriaren arretu arrosaak (4-7 urte)
Eti (4-7 urte)
Kintulen mundua (4-12 urte)
Aloren atzetan (4-12 urte)
Yuko eta pargu bidaria (4-12 urte)
Ere (7 urte)
Daramak (7 urte)

Lote 1
ekar
fundazioa
www.ekar.com

Helduentzat
KAMISETA ETA ZAPIA

Lote 2
2 Lote

haztandaren biltzarra

Mahai-jolasa

3 KIROLEZ BADAKIT MAHAI-JOLASA

Lote 1
2 KAMISETA
2 Lote

HARPIDETZA
Argia aldizkariaren
6 hileko harpidetza
2 Lote

ARGIA
www.argia.net

SPACE SEARCH
CD-ROM Jokoa

Lote 1

4-10 urteko garrantzia
inguratu

Ikastola
www.ikastola.net

Txapela Buruan

5 KAMISETA

2 Lote

sorgina buruan
www.sorginaburuan.com

6 Haur eta helduentzat BI KAMISETA

Lote 1

sahfeminak.com
www.oninart.com

ttipi saskia **TTIPI SASKIAren ZOZKETAN**
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA 5767** ra



SENDAVIVA
Aventura y diversion para toda la familia

Lote 1
4 sarrera
2 heldu+2 haur



AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariumsb.com

Lote 1
2 sarrera

Zozketan parte hartzeko epea: uztailaren 2tik 16ra. Irabazleen izenak uztailaren 24ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kostea 1,20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttipiaren fitxategian gordeko dira auzerantz izanen diren eskaritzen berri emateko. Zuzeriketa edo deusaztapeneren bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.